



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2008ko uztailaren 4a

63. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Lege proiektua, toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen 2009tik 2012ra bitarteko aurrekontu-ekitaldietarako (3. or.).
- Foru Lege proiektua, 2009-2012 eperako toki inbertsioen planari buruzkoa (10. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Nafarroako kontratu publikoei buruzko 6/2006 Foru Legeko 51. artikulua aldatzekoa. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (57. or.).
- Foru Lege proposamena, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 5.b) artikulua aldatzekoa. Zuzenketak aurkezteko epea (59. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Andelosko aztarnategi arkeologikoari buruzko plan zuzendari bat presta dezan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (60. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2009ko ekitaldiko aurrekontuen plangintzan goi karguen lansariak izotz ditzan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (62. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gastu soziala ez dezan murriztu 2008ko aurrekontuak betetzean. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (63. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Gizarte Zerbitzuei buruzko Foru Legearen 62.2. artikuluan ezarritako erregelamenduari buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (64. or.).

- Galdera, prestatu diren, prestatzen ari diren eta etorkizunean egingen diren plan zuzendariei eta horiek erasanen dituzten eraikin edo tokiei buruzkoa, Román Felones Morrás jaunak egina (65. or.).
- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak asmorik duen kapital pribatuko zahar-etxeren batekin hitzartzeko zainketa aringarrien tratamendua edo, aitzitik, Tuterako Reina Sofía Ospitaleko eremuren bat horretarako gaitzeko asmorik duen. Ana Figueras Castellano andreak egina (66. or.).
- Galdera, jakiteko noren ardura den Queiles ibaiaren Tuterako tartea zaintzea, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (66. or.).
- Galdera, El Bocalen iragan ekainaren 24an izandako suteari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (67. or.).
- Galdera, jakiteko zergatik utzi duen kargua bere borondatez María Luisa López Ballanok, Nafarroa Zaragozako Expo 2008n egotearen arduradunak, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (67. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak NA-150 errepidea, Aos eta Murelu-Longida artean, hobetzeko duen asmoari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (68. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen 2009tik 2012ra bitarteko aurrekontu-ekitaldietarako.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko uztailaren 1ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 2008ko ekainaren 23an hartutako erabakiaren bidez, toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen Foru Lege proiektua, 2009tik 2012ra bitarteko aurrekontu-ekitaldietarakoa, igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen Foru Lege proiektua, 2009tik 2012ra bitarteko aurrekontu-ekitaldietarakoa, prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea.

2. Proiektu horretaz irizpena emateko ahalmena Toki Administrazioari Batzordearen esku uztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denean, **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2008ko irailaren 22ko eguerdiko hamabietan bukatuko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 127. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proiektuari.

Iruñean, 2008ko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Foru Lege proiektua,
toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen 2009tik 2012ra bitarteko aurrekontu-ekitaldietarako**

ZIOEN AZALPENEA

Nafarroako Foru Komunitateak eskumena du toki ogasunen arloan, Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 46. artikulua araberan.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeak toki ogasunez ari den VIII. Tituluko 259. artikulua dioenez, toki entitatei behar adina baliabide emanen zaizkie dituzten eskumenak erabili eta helburuak bete ditzaten; baliabide horiek toki ogasunei buruzko foru lege batean arautuko dira, gai horrek Nafarroaren toki araubide berekia osatzen baitu –Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoko 18.2 artikulua. Horren bidez zehaztu besterik ez da egiten askitasun finantzarioaren printzipioa, Konstituzioaren 142. artikuluan biltzen dena, bertan jartzen baitu korporazioek behar adina baliabide izan beharko dutela legeak beren gain uzten dituen eginkizunak betetzeko, eta horretarako beren tributuez eta Estatukoetan nahiz autonomia erkidegoetakoetan duten partaidetza hornituko direla.

Aurreko hori betetzeko xedez, Nafarroako toki administrazioari buruzko foru lege bereko 260. eta 261. artikuluetan ezartzen da toki ogasunek, besteak beste, bere tributuez, Foru Komunitatekoetz eta Estatukoetz baliatuko direla.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeko 123. artikulua zehazkiago arautzen du zenbatekoa den Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetako partaidetza, eta

ezartzen du ezen udal agintaldi bakoitzaren bigarren urteko lehenbiziko seihilekoan Nafarroako Gobernuak Foru Parlamentuari arau-proiektu bat igorriko diola, Toki Araubideko Foru Batzordeak txostena egin ondoren. Arau-proiektu horretan zehaztuko da Toki Ogasunen Nafarroako Zergetako Partaidetzen Funttsaren zenbatekoa hurrengo lau aurrekontu-ekitaldietarako, eta finkatuko da funts hori banatzeko formula, justizia eta proportzionaltasun irizpideetan oinarriturik.

Foru lege honen bidez betetzen da legez ezarritakoa, esandako epean, eta eragina du 2009, 2010, 2011 eta 2012ko aurrekontu-ekitaldien gainean, jarraian heldu baitira Foru Lege hau aldarrikatzen den udal agintaldiaren bigarren urtearen ondotik.

Foru lege honek ezartzen du, lehenengo eta behin, Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetan toki entitateek partaidetza funtsean duten zenbateko orokorra, eta, ondoren, zenbateko hori handitzeko sistema, transferentzia arruntak eta bestelako laguntzak deritzen kontzeptuetan. Gehikuntza hori honakoa izanen da: Kontsumorako Prezioen Indizeak Nafarroako Foru Komunitatean izan duen igoera portzentalaren parekoa, ekainetik ekainera neurtua, gehi ehuneko bi.

Ekitaldi bakoitzari esleitutako partaidetzaren zenbatekoa hirutan banatzen da, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legeko 123. artikuluko 2. idatz-zatian xedatutakoaren arabera, batetik transferentzia arruntak baitira, bestetik kapital transferentziak eta, azkenik, bestelako laguntzak.

Transferentzia arruntak, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Legearen 123.3. artikuluan xedatutakoaren arabera, formula jakin baten bidez banatuko zaizkie udal eta kontzejuei. Banatzeko formulak zuzentasun eta proportzionaltasun irizpideak kontuan hartu beharko ditu, aipatu printzipio nagusiak zehazten dituzten parametroetan oinarriturik.

Ildo horretan, foru lege honek proposatzen du transferentzia arruntan funtsaren banaketa bat, zeinak, ekitate horizontalaren printzipioa aplikatuz, funts hori partitzen baitu zuzenean toki entitate bakoitzaren gastu beharren arabera eta alderantzizko proportzioan haren ahalmen fiskalarekin, eta horrela bermatzen du gehiago jasoko duela gastu behar handiagoa eta/edo bere baliabideak eskuratzeko ahalmen txikiagoa duenak.

Banaketa-sistema hiru mailatan egituratzen da. Lehenik, Iruñeko udalari esleitzen zaio kopuru bat. Bigarrenik, funtsaren gainerakoa beste udalerrien artean banatzen da; eta azkenik, kontzejuen partaidetza finkatzen da, bakoitzari dagokion udalerriri

ari esleitutako kopuruaren gainean, kontzejuek dituen biztanleen kopuruaren arabera.

Iruñeko hiriak duen berezitasuna biztanleek kopuruak ematen dio; izan ere, kopuru horrek eragiten du trataera berezia, finantzaketari dagokionez, beste toki entitateen aldean.

Bigarren mailako banaketa sistemarako, udalerriri bakoitzarentzat bi indize lortu behar dira, bata, gastu beharrena, eta bestea, ahalmen fiskalarena, eta horiek zehazteko bideak taxutu dira estatistikako prozeduretan oinarritu eta Nafarroako toki entitateen sektoreko kontabilitateari buruz dagoen informazioari aplikatuta.

Sei aldagai linealki konbinatuz lortzen da gastu beharren indizea, estatistikoki frogatu baita horiek direla eraginik handiena dutenak tokiko gastu arruntan, haietako bakoitzaren gastua esplikatze-ko ahalmenaren bidez ponderaturik. Honakoak dira aldagai horiek: hiri lurzoru garbiaren azalera, 65 urte edo gehiagoko biztanleen kopurua, etorkinak, azalera guztira eta barreatze-indizea (kontzentrazio indizearen alderantzizkoa).

Ahalmen fiskalaren ponderazioa 0,3491 da, hori baita, finantzatu beharreko gastu arruntan guztirakoaren gainean, indize horretan ordezkatzaren diren toki baliabide ekonomikoen baturaren portzentajea. Baliabide horiek honakoak dira: hirilurraren eta landalurraren gaineko kontribuzioak, jarduera ekonomikoen gaineko zerga, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga eta herrilurraren aprobetxamenduagatik diru-sarrerak.

Kontzejuen partaidetza, berriz, banaketako hirugarren mailak ezartzen du, udalerriri esleitutako zuzkiduran oinarrituta. Partaidetza hori kalkulatzeko, udalerriri esleitutakoa % 30ez eta kontzejuek udalerriko biztanleriaren guztirakoarekin alderaturik duen biztanleen proportzioaz biderkatzen da. Parametro hori da kontzejuei dagokien gastuaren batez bestekoa, gaur egungo eskumenen banaketa kontuan izanik.

Banaketa formula berri honek ez du erabateko hausturarik eragin nahi egun arte indarra zuen sistemarekin, eta horregatik berme sistema bat ezarri da.

Kapital transferentzietan dagokienez, haien banaketa inbertsioen plana arautzen duen foru lege baten arabera eginen da .

Funttsaren banaketaren azken kapitulua "Beste laguntza batzuk izenekoa da, honako kontzeptu hauek biltzen dituena: abenduaren 2ko 16/1997 Foru Legearen arabera, "Iruñearen Hiriburutza Agiria" kontzeptuagatik Iruñeko Udalari dagokion zuzkidura; gainerako toki entitateentzako zuzkidu-

ra bat, haien guztien artean banatzen dena formula orokorraren bidez, bai eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 72.2 artikuluan, interes komunak babestu eta sustatzeko osaturiko toki entitateen federazio edo elkarteentzako laguntza ekonomikoei buruz, ezarritakoa betetzeko zuzkidura ere. Eta, azkenik, beren eginkizun instituzionaletan aritzeagatik euren korporaziokideei ordainsariak, bilkura-sariak edo egindako gastuen ondoriozko bestelako gastuak ordaintzen dizkieten Nafarroako udalantzako konpentsazioa" izeneko atalari dagokiona banatuko da foru lege honetan zehazten den bezala.

I. KAPITULUA

Zuzkidura orokorra eta eguneratzea

1. artikulua. Funtsaren zuzkidura.

2009ko ekitaldi ekonomikorako Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetan toki entitateek duten partaidetza funtsaren zuzkidura 240.782.455 eurokoa izanen da hasiera batean, eta kopuru hori Nafarroako Aurrekontu Orokorretan agertuko da. Gero, zenbateko hori handitu egingen da, transferentzia arruntak eta bestelako laguntzak deritzen kontzeptuetan. Gehikuntza hori honakoa izanen da: Kontsumorako Prezioen Indizeak Nafarroako Foru Komunitatean izan duen igoera portzentualaren parekoa, ekainetik ekainera neurtua, gehi ehuneko bi.

2. artikulua. Funtsaren banaketa.

Toki ogasunen Nafarroako tributuetako partaidetzen funtsa, 2009ko ekitaldirako, honela banatuko da:

1. Transferentzia arruntak: 157.727.904 euro.
2. Kapital transferentziak: 56.197.537 euro.
3. Bestelako laguntzak:

A) Iruñeko Udalari "Hiriburutza Agiria" delakoa-gatik: 21.567.407 euro.

B) Nafarroako udalei, korporaziokideei ordainketak egiteko: 4.929.508 euro.

C) Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari: 360.099 euro.

3. artikulua. Aurrekontuan esleitutako diru kopurua.

1. Nafarroako 2009, 2010, 2011 eta 2012ko ekitaldiei dagozkien aurrekontu orokorretako bakoitzean, agertuko da zenbatekoa den toki entitateen Nafarroako Ogasun Publikoko tributuetako partaidetzen funtsa, zeina banatuko baita aurreko artikuluan aipatzen diren epigrafeetan.

2. Transferentzia arruntak eta bestelako laguntzak xede izanik, Funtsean 2010, 2011 eta 2012ko urteetarako esleitutako diru kopurua zehazteko, aurreko artikuluan 2012. urterako kontzeptu horiengatik ezarritakoa hartuko da oinarritzat, eta gehituko zaio kontsumorako prezioen indizeak Nafarroako Foru Komunitatean izaten duen igoera portzentuala, ekainetik ekainera hartuta, urte horietako bakoitzerako, eta beste bi puntu gehiago erantsiko zaizkio.

3. Funtsean kapital transferentziatarako berezitatutako diru kopurua 57.602.474 euro izanen da 2010. urtean, 59.042.536 euro 2011. urtean eta 60.518.599 euro 2012. urtean, eta diru hori 13. artikuluan xedatutakoaren arabera banatuko da.

II. KAPITULUA

Transferentzia arruntan esleipena.

4. artikulua. Iruñeko udalerrientzako esleipena.

Iruñeko Udalari 2009rako aurreko urtean jaso zuen zenbateko esleituko zaio, betiere 2008. urtearen aldean 2009rako gehitutako portzentajea gehituta, eta hurrengo ekitaldietan, 2010, 2011 eta 2012koetan, alegia, aurreko urtean jasotako zenbatekoa esleituko zaio, gehi 3. artikuluko 2. idatz-zatian ezarritako irizpidearen arabera legokiokeena.

5. artikulua. Gainerako udalerrien artean banatu beharreko zenbatekoa.

Gainerako udalerriek 2009, 2010, 2011 eta 2012. urteetako ekitaldietan banatuko duten kopurua 2. artikuluko I idatz-zatian aurreikusitako kopurua izanen da, Iruñeko Udalari dagokion esleipena kendu eta gero.

6. artikulua. Gainerako udalerrientzako banaketarako formula.

Gainerako udalerrientzako banaketarako formula prozedura honi jarraikiz lortzen da:

a) Gastu premien indizea gastu premiaren sei aldagai adierazleen konbinazio linealaren bidez lortzen da, haietako bakoitzak gastu horren azalpenak emateko duen ahalmenaren arabera ponderaturik. Honakoak dira aldagai horiek: hiri lurzoru garbiaren azalera, 65 urte edo gehiagoko biztanleen kopurua, etorkinak, azalera guztira eta barreatze-indizea (kontzentrazio indizearen aldeantzikoa).

b) Bigarren fase batean, Udalen ahalmen fiskal eta ondarekoaren aldagai adierazleen konbinazio linealaren bidez lortuko da ahalmen fiskalaren indizea, bost sarrera moten arabera likidatutako esku-

bideen guztizkoan haietako bakoitzak duen pisua-
ren arabera ponderaturik. Honako aldagai hauek
erabiliko dira: hirilurraren eta landalurraren gaineko
oinarri fiskalak, jarduera ekonomikoen gaineko
zergarena, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko
zergarena eta herrilurraren katastro-balioa.

c) Azkenik, gastu beharren indizeari kenduta
0,3491 faktoreak ponderatutako ahalmen fiskala,
formula hau aterako da:

$$FTC = 0,9231 \times PPOB + 0,1278 \times PMA65 + 0,3355 \times PURB + 0,1341 \times PPINM + 0,0083 \times PINV-DISP + 0,0074 \times PSUP - 0,2490 \times PCTU - 0,0222 \times PCTR - 0,0760 \times PIAE - 0,0995 \times PIVTM - 0,0895 \times PVCC.$$

Azalpena:

FTC da udalerrri bakoitzaren banaketa indizea.

PPOB da udalerrri bakoitzaren biztanleria adie-
razten duen portzentajea, Nafarroa osoaren biz-
tanleriarekin alderaturik, Iruña kenduta.

PURB da udalerrri bakoitzaren hiri azalera gar-
bia adierazten duen portzentajea, Nafarroa osoa-
ren hiri azalera osoarekin alderaturik, Iruña kendu-
ta. Hiri azalera garbia da planoaren arabera
azaleraren (azalera grafikoa) eta lurzati batuketa-
ren modura hartutako azaleraren (azalera alfanu-
merikoa) arteko aldea.

PMA65 da udalerrri bakoitzean 65 urte edo
gehiago dituzten biztanleen portzentajea, Nafarroa
osoa 65 urte edo gehiago dituzten biztanle guzti-
en baturarekin alderaturik, Iruña kenduta.

PPOB da udalerrri bakoitzaren biztanleria adie-
razten duen portzentajea, Nafarroa osoaren biz-
tanleriarekin alderaturik, Iruña kenduta.

PINVDISP da populazioaren kontzentrazio indi-
zearen alderantzizkoa adierazten duen portzenta-
jeari, honela kalkulatu: udalerrri bateko bizigune
bakoitzeko populazioak populazio osoarekin alde-
ratuak osatzen duen portzentajeen koadratuen
batura, Nafarroa (Iruña kenduta) osoko populazio-
aren kontzentrazioaren indizeen alderantzizkoen
baturarekin alderaturik.

PSUP da udalerrri bakoitzaren azalera osoak
adierazten duen portzentajea, Nafarroa osoaren
azalerarekin alderaturik, Iruña kenduta.

PCTU da udalerrri bakoitzaren lurralde kontribu-
zioaren likidazio-oinarri doitua adierazten duen
portzentajea, Nafarroa osoari dagozkion tributu
horren likidazio-oinarri doituen baturarekin alder-
aturik, Iruña kenduta. Oinarriak merkatu balioen
arabera doitzen dira, koefiziente zuzentzaile baten
bitartez, zeinak merkatu balioekin alderaturik ager-

tzen duten urruntasunaren arabera handitzen baiti-
tu balioak. Ekonomia eta Ogasun Departamentuko
Lurralde Aberastasunaren Zerbitzuak finkatuko du
koefiziente zuzentzaile hori etxebizitzentzat.

PCTR da udalerrri bakoitzaren lurralde kontribu-
zioaren landalurrentzako likidazio-oinarria adie-
razten duen portzentajea, Nafarroa osoari dagoz-
kion landalurrentzako likidazio-oinarri guztien
baturarekin alderaturik, Iruña kenduta.

PIAE da udalerrri bakoitzaren jarduera ekono-
mikoen gaineko zergaren oinarri-kuota adierazten
duen portzentajea, Nafarroa osoari dagozkion jar-
duera ekonomikoen gaineko zergaren baturarekin
alderaturik, Iruña kenduta; betiere, oinarri-kuota-
tzat hartzen da nazio, lurralde nahiz udal esparru-
ko kuoten batura, udal errekarua kenduta.

PIVTM da udalerrri bakoitzean Trakzio mekani-
koko ibilgailuen gaineko zergaren eskubide likida-
tuak adierazten dituen portzentajea, Nafarroa oso-
ari dagozkion zerga honen eskubide likidatu-
en guztirakoarekin alderaturik, Iruña kenduta.

PVCC da udal bakoitzean herrilurraren katas-
troko balioa adierazten duen portzentajea, Nafa-
rroa osoko udalerrietako balioen guztirakoarekin
alderaturik, Iruña kenduta. Beren mugapean kon-
tzejuak dituzten udalen kasuan, kontzejuetan
kokaturik ez dagoen herrilurraren balioa baizik ez
da hartzen da kontuan.

7. artikulua. Gainerako udalerrientzako hasie-
rako esleipena.

1. Aurreko artikuluan aipatzen den formula uda-
lerrri bakoitzeko aldagaien balioei aplikatuz aterako
da udal mailako banaketa indizea .

2. Edozein udalerrientzat ateratzen den bana-
keta-indizea negatiboa baldin bada, zero balioa
emanen zaio, eta berriz kalkulatuko dira gainerako
udalerrientzako banaketa-indizeak, haien guztien
batuketaren emaitza 1 izan dadin.

3. Banaketa-indize banatu beharreko kopuru-
aren gainean hau aplikatuko da, hori 5. artikulua-
ren arabera kalkulatzeko baita, udalerrri bakoitzari hasi-
eran dagozkion esleipena lortzeko.

8. artikulua. Berme klausularen aplikazioa eta
behin betiko esleipenaren kalkulua udal mailan.

1. Udalerrri batek 2009ko ekitaldiarengatik eta
aurreko artikuluan xedatutakoaren ondorioz jaso
beharreko kopurua ez da inoiz txikiagoa izanen
hark berak 2008ko ekitaldiko Funtsaren banake-
tan, transferentzia arruntak eta Nafarroako udale-
rrientzako konpentsazio finantzarioa kontzeptua-
gatik (Nafarroako Foru Komunitatean kontsumoko
prezioen indizeak –ekainetik ekainera harturik-

izandako igoera portzentuala gehiturik) jaso zuena baino. 2010, 2011 eta 2012ko ekitaldietarako bermea aurreko ekitaldikoa izanen da, irizpide bera aplikatuz eguneratua.

2. Baldin eta Funtseko partaidetzatik, transferentzia arruntak kontzeptuagatik, udalerrri bati hasieran esleitutako kopurua iristen ez bada aurreko idatz-zatietan ezarritako bermera, behar diren kopuruak kenduko zaizkie, hasieran esleituak zituztenetatik, bermatutakotik goitiko kopuruak lortzen dituzten udalerriei, bakoitzari dagokion bermearekin alderaturik lortutako igoeraren arabera proportzioan.

9. artikulua. Kontzejuentzako hasierako esleipena.

Kontzejuak dituzten udalerrietan, udalerrri horiei esleitutako partaidetzatik parte bat kenduko zaie, aurreko artikuluan xedatutakoaren arabera, kontzejuen artean banatzeko. Entitate horien hasierako partaidetza kalkulatzeko, kasuan kasuko udalerrriaren partaidetza bider %30 eginen da, eta hori berriz ere bider kontzejuko biztanleen proportzioa, udalerrriaren biztanleria osoarekin alderaturik ateratakoa. Udalerrriaren hasierako esleipena gelditzen den kopurua izanen da.

10. artikulua. Bermearen aplikazioa eta behin betiko esleipenaren kalkulua beren mugapean kontzejuak dituzten udalerrietan.

1. 2009ko ekitaldirako Toki ogasunek Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetan parte hartzeko funtsaren transferentzia arruntan kontzeptuan kontzejuak eta beren udalak jaso beharreko zenbatekoa, aurreko artikuluan xedatutakoa betetzeko, ez da inoiz izanen Funtsaren banaketan transferentzia arruntan kontzeptuan 2008ko ekitaldian jasotakoa baino gutxiago (Nafarroako Foru Komunitatean kontsumoko prezioen indizeak –ekainetik ekainera harturik- izandako igoera portzentuala gehiturik). 2010, 2011 eta 2012ko ekitaldietarako bermea aurreko ekitaldikoa izanen da, irizpide bera aplikatuz eguneratua.

2. Berme hori kontzejuentzat eta haien esparruko udalerrientzat gauzatzeko, baldin eta banaketa formularen aplikazioarekin hartara iristen ez badira, behar diren kopuruak kenduko zaizkie udalerrri berekoak izanik bermetik goitiko kopuruak lortzen dituzten entitateei, 8. artikuluan arabera haiei esleitutako kopuruetatik, bakoitzak dagokion bermetik izandako igoeraren proportzioan.

11. artikulua. Erabilitako aldagaiak.

1. Nafarroako udalerrien arteko banaketa kalkulatzeko behar diren aldagaien balioak foru lege honen eranskinean aipatzen diren iturrietatik lortu-

ko dira. Aldagaien erreferentzia urtea, banaketa egiten den urteko maiatzaren 1ean eskura dauden Estatistikako Institutu Nazionalaren udalerrietako biztanleriaren inguruko azkeneko datu estatistiko ofizialena izanen da. Erreferentzia urte horretako daturik ez bada, hurbileneko urtekoak hartuko dira.

2. Aurreko idatz-zati horretan xedatutakoa ukatu gabe, Trakzio mekanikoko ibilgailuen zergako datuak azken ekitaldiko kontuen espedientetik aterako dira, zeina Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen arabera aurkeztua beharko baitu Toki Administrazioako Departamentuan, edo, bestela, ekitaldi horretako bereko aurrekontuaren likidazio espedientetik, Toki Ogasunei buruzko Foru Legeko 227.2 artikuluan eta hura garatzeko xedapenetan xedatutakoaren arabera. Aurreko hori hala ez bada, eskura dagoen azkeneko daturik berriena eguneratuko da, urteko %10eko igoera aplikatuz. Aurreko hiru ekitaldietako daturik ez bada, Nafarroako per capita daturik handienaren arabera kalkulatu da, biztanleria aldagaia oinarritzat hartuz.

3. Kontzejuentzako banaketa kalkulatzeko, erreferentzia-urtetzat hartuko da, banaketa zein urtetan egiten den, urte horretako maiatzaren 1ean datu ofizialak eskura dauden urtea; datuak, betiere, hala Estatistikako Institutu Nazionalaren udalerrien biztanleria-estatistikakoak nola Nafarroako Estatistika Erakundearen kontzejuen biztanleria-estatistikakoak, bietan urte berari buruzkoak izanen dira.

4. Aurreko idatz-zatietan xedatutakoa ukatu gabe, kontzejuen edo udalen mugapeetan aldaketak gertatzen badira eta, aldagaien balioek haien eragina jasaten dutelako, banaketan kontuan hartu behar badira, aldagaien zenbatekoa berriro kalkulatu da, banaketa gertatzen den uneko egoera administratiboari egokitzeko, betiere egoera administratibo horri buruzko datu ofizialik ez badago.

12. artikulua. Ordainketa.

1. Toki entitateen Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetako partaidetza funtseko diru kopuruaren ordainketa, transferentzia arruntak kontzeptuagatik esleitutakoari dagokiona, lau alditan eginen da ekitaldi bakoitzean, eta hiruhileko natural bakoitzaren lehen hamabostaldian ordainduko dira.

2. Lehenbiziko bi aldietako bakoitzean ordainduko da aurreko ekitaldian behin betikoz jasotako kopuruaren ehuneko hogeita bosta.

3. Hirugarren ordainketa egin aurretik, toki entitate bakoitzarentzako urteko behin betiko esleipena kalkulatu da, eta une horretan aurreko biak osatuko dituen kopuru bat ordainduko da, esleipe-

naren ehuneko 75era iritsi bitarte, eta laugarren hiruhilekorako utziko da falta den zatiaren ordainketa.

4. Udalerrien eta haien mugapeko kontzejuen artean sinatutako hitzarmenik badago, eta hartan hori aipatzen bada, hitzarmenean ezarritako moduan ordainduko zaie entitate horiei, deusetan ukatu gabe hasiera batean entitate bakoitzari dagokion ekarpenaren zenbatekoa banaketa formula aplikatuz kalkulatzeko.

III. KAPITULUA

Kapital-transferentzien esleipena

13. artikulua. Kapital transferentzien bidezko partaidetzaren banaketa

Funtsetik Toki Azpiegituren Planerako izendatutako diru kopuruen banaketa Toki Azpiegituren 2009-2012 Plana arautzen duen Foru Legean xedatzen denaren arabera egingen da.

IV. KAPITULUA

Bestelako laguntzen esleipena

14. artikulua. Bestelako laguntzen banaketa

Funtseko diru kopuruetan, "Bestelako laguntzak" sailaren barrenean daudenetik "Hiriburutza Agiria" delakoagatik Iruñeko Udalarari dagozkionak, araubide berezi hori ematen duen abenduaren 2ko 16/1997 Foru Legean xedatutakoaren arabera banatuko dira.

15. artikulua. Nafarroako udalentsako konpentsazioa, hautetsiei beren karguan aritzeagatik ordaindutakoaren aldera.

Kargu publiko hautatuan aritzeagatik beren korporaziorikideei ordainsariak, bilkura-sariak, kalteordainak edo eginkizun publikoetan parte hartzeko eskubide konstituzionalean aritzearen ondorioz sortutako gastuengatik heldu diren bestelako paguak ordaintzen dizkieten Nafarroako udalentsako konpentsazioa, honela egingen da:

a) Baldin eta udalek alkate eta zinegotzietatik ordaintzen badiete, legeria orokorrari jarraikiz, beren karguan denbora osoan edo partzialean aritzeagatik, edo ematen badizkiete bilkura-sariak, kalteordainak edo bestelako paguak, kargu publikoan aritzearen ondorio zuzenak direnak, toki ogasunen Nafarroako zergetako partaidetza funtsetik ekarpen bat jasoko dute, ordain horien kostua kitatzeko.

b) Kontzeptu horretatik, udalek urtean jasotzen ahal duten gehieneko ekarpena, 2009. urterako, udala osatzen duten hautetsien kopuruaren arabe-

ra, hauteskundeetako legeria orokorrari jarraikiz, honako hau izanen da:

- Kontzeju irekiko araubideko udalak: 3.995 euro.
- 5 zinegotzi hautetsi dituzten udalerriak 10.292 euro.
- 7 zinegotzi hautetsi dituzten udalerriak 15.135 euro.
- 9 zinegotzi hautetsi dituzten udalerriak 18.162 euro.
- 11 zinegotzi hautetsi dituzten udalerriak 29.059 euro.
- 13 zinegotzi hautetsi dituzten udalerriak 50.247 euro.
- 17 zinegotzi hautetsi dituzten udalerriak 76.885 euro.
- 21 zinegotzi hautetsi dituzten udalerriak 110.181 euro.
- 27 zinegotzi hautetsi dituzten udalerriak 184.644 euro.

c) Ekarpene horiek beren xedeari lotuak egonen dira, bakar-bakarrik erabiliko baitira alkate nahiz zinegotzietatik aipatu diren kontzeptuengatik ordaintzeko, eta urtero eguneratuko dira, 3. artikuluko 2. zerbakiaren ezartzen den moduan.

d) Ordainketa behin egingen da transferentzia arruntaren funts orokorraren bigarren soluzioarekin, urte bakoitzaren urtarrean, jaso nahi duten udalek alde aurretik eskatuta, eta eskabideari ekarpen honek aurreko ekitaldian izan zuen zenbatekoa eta xedea gehitu beharko dizkiote a la que acompañarán, halakorik egin bazuten. Baldin eta hautetsietatik ekitaldian ordaindutako kopuruak guztira iristen ez badira artikuluko honetan udal bakoitzarentzat ezarritako gehieneko kopurura, kontzeptu honengatik egiten den hurrengo ordainketan kenduko da kopuruen arteko alde hori.

Udal mailako hauteskundeak gertatzen diren ekitaldietan, eta horien ondorioz hautetsien kopuruaren aldaketarik izan bada, ekitaldi horretan jasotako zenbatekoen erregularizazioa, eratze dataren artean eta urtearen azken egunaren artean dagoen eperako, udal bakoitzeko hautetsien kopuruaren arabera kalkulatu da.

e) Baldin eta soberakinik gertatzen bada xede hauetarako kontsignazioan, guztira likidatutako kopuruari dagokionez, soberakinak transferentzia arruntaren funts orokorrari gehituko zaizkio, zeinari erantsiko baitzaizkio foru lege honetako 12. artiku-

luan aipatzen den urteko behin betiko esleipena kalkulatu aurretik.

f) Baldin eta defizita gertatzen bada korporaziokideen gastua konpentsatzeko esleipenean likidazioa egiteko behar den diru kopuruari dagokionez, transferentzia arrunten Funts Orokorretik hartuko da, foru lege honen 12. artikuluan aurreikusitako urteko espeipen behin betikoa alde aurretik kalkulaturik, edo bestela Toki Administrazio-ko Departamentuaren Aurrekontuko 4. kapituluko beste edozein kontusailetik.

16. artikulua. Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarentzako laguntza.

Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarentzat Funtsaren barrenean esleituriko kopurua ordainduko da transferentzia arruntentzat Foru Lege honetako 12. artikuluan aipatzen den modu berean.

Xedapen gehigarria. "Iruñearen Hiriburutza Agiria" ezartzen duen abenduaren 2ko 16/1997 Foru Legearen aldaketa.

- a) Foru lege horren 6. artikulua indargabetu da.
- b) Artikulua honela geratzen da idatzirik:

"Iruñearen Hiriburutza Agiria" kontzeptuagatik Iruñeko Udalarari dagozkion zenbatekoen ordainketa lau soluziotan eginen da ekitaldi bakoitzean, eta urteko hiruhileko bakoitzaren lehen hamabostaldian gauzatuko."

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru Lege honek 2009ko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra.

ERANSKINA

Banaketa formulako aldagaiak
eta aplikazio iturriak

1. Udalerrri bakoitzaren biztanleria. Estatistikako Institutu Nazionalak, urte bakoitzeko urtarrilaren 1ari dagokiola, argitaratzen duen ofiziala.

2. Kontzeju bakoitzaren biztanleria. Nafarroako Estatistika Erakundeak, urte bakoitzeko urtarrilaren 1ari dagokiola, argitaratzen duen ofiziala.

3. Udalerrri bakoitzean 65 urte edo gehiago dituzten biztanleak. Estatistikako Institutu Nazionalak emana (urte bakoitzeko urtarrilaren 1ekoa).

4. Hiri azalera garbia. Planoan ageri den azalera (azalera grafikoa) ken lurzatiek batuta duten azalera (azalera alfazenbakizkoa). Nafarroako

Gobernuko Lurralde Aberastasunaren Zerbitzuak emana. Erreferentzia urtea, udalerrietako populazi-orako ematen den berbera.

5. Etorकिनak. Nafarroako Estatistika Erakundeak, urte bakoitzeko urtarrilaren 1ari dagokiola, argitaratzen duen ofiziala.

6. Ekonomia eta Ogasun Departamentuak emandako azalera osoa

7. Populazioaren kontzentrazio indizearen aldearantzizkoa, Nafarroako Estatistika Institutuak emandako datuekin urte bakoitzerako kalkulata.

8. Lurralde kontribuzio doituaren hirilurraren likidazio-oinarria. Hori da udalerrri bakoitzeko lurra- ren gaineko kontribuzioko hirilurraren likidazio oinarria biderkatua merkatuko balioei doitzeko koefizientearekin. Bi horiek Nafarroako Gobernuko Lurralde Aberastasunaren Zerbitzuak ematen ditu, Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistro Fiskaletik datuak harturik, udalerrien biztanleriari dagokion erreferentzia urte bererako.

9. Udalerrri bakoitzeko Lurralde kontribuzioaren landalurraren likidazio-oinarria. Nafarroako Gobernuko Lurralde Aberastasunaren Zerbitzuak ematen du, Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistro Fiskaletik datuak harturik, udalerrien biztanleriari dagokion erreferentzia urte bererako.

10. Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren oinarri kuota. Nazio kuoten, lurralde kuoten, lokal finkorik gabekoen udal kuoten eta lokal finkoa dutenen udal kuoten batura da, azken horretan udal errenergua kenduta. Datu hauek Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Jarduera Ekonomikoen Erregistroak emandakoak izanen dira.

11. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren eskubide likidatuak. Udalek Toki Administrazio-ko Departamentuari igorritako kontuen lokidazioetatik aterea. Igortzen ez baditu, aplikatuko da zenbatespen bat, kalkulatu dena Foru Lege honetako 11. artikuluko 2. puntuan ezarritako irizpidearekin.

12. Herrilurren katastroko balioa. Hori da, Nafarroako udalerrri bakoitzarentzat, herri-ondasunen eta haietatik datozenen katastro-balioa, udalerrien biztanleriari dagokion erreferentzia urte bererako. Beren baitan kontzejuak hartzen dituzten udalerrien kasuan, ez da sartzen kontzejuen titulartasunarekin dauden herri-ondasunak. Nafarroako Gobernuko Lurralde Aberastasunaren Zerbitzuak emana. Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistro Fiskaleko datuak.

Foru Lege proiektua, 2009-2012 eperako toki inbertsioen planari buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko uztailaren 1ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 2008ko ekainaren 23an hartutako erabakiaren bidez, 2009-2012 eperako toki inbertsioen planari buruzko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. 2009-2012 eperako toki inbertsioen planari buruzko Foru Lege proiektua prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea.

2. Proiektu horretaz irizpena emateko ahalmena Toki Administrazioiko Batzordearen esku uztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denean, **hamabost egun baliouduneko epea hasiko da eta 2008ko irailaren 22ko eguerdiko hamabietan bukatuko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 127. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proiektuari.

Iruñean, 2008ko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

2009-2012 eperako toki inbertsioen planari buruzko Foru Lege proiektua

ZIOEN AZALPENA

Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 61. artikuluan xedatutakoarekin bat, Nafarroako Gobernuak, hartarako gaitasuna ematen dion foru lege baten esparruan, inbertsio planak ezarriko ditu, toki entitateekin lankidetzan aritzeko tresna gisa, Nafarroako lurralde osoan nahitaezko udal zerbitzuak bermatzea helburu.

Azken urteotako toki azpiegituren planak aztertuta, ikusi da toki azpiegituren arloan hasieran zeuden gabeziak estaltzen joan direla, eta orain erreferentziako manuun helburua handitu beharko

litzateke, azpiegiturak hobetu eta kalitatea handitze aldera jotzeaz gainera, urteen poderioz lurraldeen artean gertatu diren desberdintasunak poliki-poliki berdintzera jotzeko, izan ere, Nafarroan badira herri batzuk Nafarroako Foru Komunitateko Toki Administrazioan kalkulatu den egitura-gabeziaren batez bestekotik gorako gabeziak dituztenak.

Beste alde batetik, gero eta jende gehiago eskatzen ari da Toki Azpiegituren Planaren kargura finantza daitezkeen jarduketa-lerroen artean beste batzuk ere sartzeari, Nafarroako toki entitateei aukera emateko tokian tokiko herritarrek eskatzen dituzten bestelako beharretarako, hots, udal eskumenekoak izan arren, udal zerbitzuen legezko sailkapenetik kanpo dauden inbertsioetarako.

Horregatik, 2009-2012 eperako Inbertsio Planaren helburua da nahitaezko udal zerbitzuen estaldura modu orekatuan bermatzea eta haiek hobetu eta kalitatea handitzea, eta horrekin guztiarekin batera, udal eskumenekoak izan arren nahitaezkoak ez diren beste inbertsio batzuk gauzatu ahal izateko toki entitateek egin dituzten eskakizunei kasu egitea, inbertsio horiek tokian tokiko herritarren aurrerapen eta ongizatearentzat lehentasunezko zatitza izaten badira.

Dena dela, bateratze hori lortzeko har litezkeen neurrien ondorioak kontuan harturik, bidezkoa da gero batean lege mailako jarduketa batek zehaztuko duen araubide berezi bat ezartzea, planaren ohiko aurreikuspenek konpontzen ez dituzten oinarritzko zerbitzuen arloko egoera hitzartu jakin batzuei konponbidea emateko.

Gainera, hurrengo planak hurrengo Azpiegitura Planen "Ebaluazio azterketak" egitea aurreikusi beharko du, azpiegituren benetako gabeziak zehazteko adierazleak eguneratzeko, horrela, egoeraren diagnostiko berria eginik, toki azpiegituren arloan Nafarroako Toki Administrazioarekin lankidetzan aritzeko sistema bat diseinatu eta ezarri ahalko baita, herritarren benetako beharren arabera.

Era berean, kontuan harturik hemendik gutxira Administrazio Elektronikoa buruzko Legeak indarra hartuko duela, eskaerak eta planean aurreikusitako gainerako prozedura-tramiteak horretarako ezarriko diren bide telematikoko seguruen bidez egitea onartuko da.

Horrenbestez, 2009-2012 eperako Toki Azpiegituren Planak, aurrekoak bezala, prozedura arloan hobekuntzak egitea, lurraldeen arteko oreka sustatzea eta plana justifikatzen duten legezko

helburuak lortzea du helburu, baina trantsizio plan gisa eratzten da, hurrengo plana honako honen emaitzak, planak iraun bitartean eginen diren ebaluazio planen ondorioak eta tokiko maparen balizko berrantolaketa kontuan harturik diseinatuko baita. Hala ere, plan honetan Nafarroako Toki Administrazioaren azpiegituren eta zerbitzuen arloan Nafarroako Gobernuaren lankidetzeta ekonomikorako sistema berria osatuko duten adierazleak antzeman beharko dira.

1. artikulua. 2009-2012 eperako Toki Inbertsioen plana.

1. 2009-2012 eperako Toki Inbertsioen Planaren barrenean jarduketa sail bat sartzen da, epe horretan Nafarroako udal eta kontzejuen eskumeneko zerbitzuei lotutako azpiegitura batzuk instalatu, hobetu eta berritzeko asmoz egin gogo direnak, betiere foru lege honetan zehazten diren baldintzak, programazioa, araubide ekonomiko-finantzarioa eta kudeaketa arauak betez.

2. Lege honetan agertzen diren determinazioen arabera, Toki Inbertsioen Planak ohiko plan bat eta ohiz kanpoko plan bat hartzen ditu bere baitan.

3. Toki Inbertsioen Ohiko Planean ondokoetan aurrikusten diren inbertsioak sartuko dira: a) Plan zuzentzaileetakoak, b) Toki programaziokoak, c) Zeharbideen urbanizaziokoak, d) Libreki erabakitakoak.

4. Aurreko inbertsio planen aplikazioen ondorioz sortu diren lurralde desorekak berdindu nahian, ondoko obrak finantzatzeko araubide berezi bat ezarri da: "Uraren goi-hornidura," plan zuzentzaileetan sartuak daudenak, eta "Hornidura eta saneamenduko tokiko sareak," "Kaleko argiak," "Zolatzeak" eta "Udal eraikinak," toki programaziokoak.

Uraren goi-hornidurako obrak finantzatzeko araubide bereziari esker, planean sartuta dauden toki entitate batzuei orokorrean ezartzen den diruekarpina baino %10 gehiago emanen zaie, hots, planean sartuta egonik, lege honen I. eranskineko zerrendaren arabera, "azpiegitura horren egoeraren koefiziente adierazlea" Nafarroako batez bestekoa baino handiagoa dutenei. Araubide berezi horretan zerrendan ez dauden beste toki entitate batzuk ere sar daitezke, onartutako inbertsioa elkarrekin kudeatzeko asmoz eranskinen agertzen den entitate batekin elkartzan baldin badira.

Toki programazioan aipatzen diren inbertsioetako araubide bereziaren bidez ekarpenaren %80 onartuko zaie, lege honen I. eranskineko zerrendaren arabera, "azpiegitura mota bakoitzaren egoeraren koefiziente adierazlea" Nafarroako batez bestekoa baino handiagoa duten toki entitateei,

HLKren leheneste-hurrenkeraren arabera eta zuzkidurak agortu arte.

"Azpiegitura mota bakoitzaren egoeraren koefiziente adierazlea" Nafarroako batez bestekoa baino handiagoa duten herriak sartuko dira zerrenda horretan.

Hauek dira azpiegitura mota bakoitzaren gabeziaren adierazleak:

GHA, uraren goi-horniduraren sarea osatzen duten elementuen egoerari eta kokapenari buruzkoa; hau da, harguneak, hodiak, ponpak, biltontziak eta ura tratatzeko instalazioak.

HSA, ura banatzeko eta saneamenduko tokiko sareen egoerari eta hedadurari buruzkoa.

IZOL, herrigune finkatuaren barrenean zoladuraren egoerari eta hedadurari buruzkoa.

HAA, herrigune finkatuaren barrenean herriko argien egoera eta hedadurari buruzkoa.

UDEI, udal eta kontzeju etxeen kontserbazio egoerari eta hedadurari (dotazioa) buruzkoa.

2. artikulua. Plan Zuzentzaileak.

1. Nafarroako toki entitateen jardunean behar den koordinazioa segurtatzeko, komunitatearen intereseko eta, beraz, tokiz gaindiko intereseko deklaritzen dira entitate horien eginkizun eta jarduera hauek:

a) Uraren goi-hornidurak, plan zuzentzailean sarturik daudenak.

b) Ibaien saneamendua eta arazketa.

c) Hiri hondakinak eta hondakin berariazkoak bildu eta tratatzea.

2. Nafarroako Gobernuak koordinatzen du toki entitateen jarduna gai horietan, dagozkien plan zuzentzaileen bidez. Plan horiek aginduzkoak izanen dira eta foru lege honetan aipatzen diren baldintzen eta mugen barrenean garatuko dira.

3. Uraren goi-hornidurarako plan zuzentzaileak herriguneak hornitzeko ur eskaerei kasu egitea du helburu, industriako eta abeltzaintzako kontsumo bakanduak kontuan hartu gabe. Hortaz, aintzat hartzen ditu erabili beharreko baliabideak eta haien banaketa, ura hartzeko eta erregulatzeko lanak, ur hodiak, ura tratatzeko edo edateko modukoa bihurtzeko instalazioak eta ur biltegiak. Plana garatzeko planek finkatuko dute, hala behar duenean, zein jarduketa eremutan bilduko diren udalak eta zein konponbide tekniko hartu behar den kasu bakoitzean.

4. Ibaien arazketa eta saneamendurako plan zuzentzaileak bere baitan hartzen ditu gaur egun ur-ibilguetara isurtzen diren hiri hondakin-uren hustubideak, haiek bildu eta araztegiara eramane dituztenak, araztegiak berak eta, azkenik, ondoren ur-ibilguetara isurtzeko hodiak. Planak, orobat, egin beharreko obrak zehaztu eta programatzen ditu.

5. Unean-unean indarra duten Hiri hondakin Plan Zuzentzailean eta Hondakinak kudeatzeko Plan Integratuan sartzen dira materia organikoaren eta material inerteen tratamendua egiteko behar diren baliabideak, materia organikoa eta papera/kartoia biltzea, puntu garbiak instalatzea, obra-hondakinak entregatzeko tokiak, hondakindegiak ixtea eta behar diren baliabide osagarriak. Bi planek finkatzen dute zein jarduketa eremutan bilduko diren udalerririk eta zein konponbide tekniko hartu behar den kasu bakoitzean.

3. artikulua. Toki programazioa.

1. 2009-2012 eperako Toki Inbertsioen Planaren Toki programazioko inbertsioetan sartzen dira, hain zuzen ere, foru lege honetan ezartzen diren hautapen irizpideak aplikaturik, aurreikusten diren finantza-laguntzak hartu eta bertan ezartzen den kudeaketa araubideari lotzen zaizkion obra guztiak.

2. Toki programazioko inbertsioak dira goi-hornidurari buruzkoak, Plan zuzentzailean sartuta ez badaude, ura banatzeko eta saneamendurako hiri sareak, kaleetako argiak, zoladura ematea, udal eraikinak, hilerriak eta herrietako bideak.

3. Ura banatzeko hiri-sareak dira erregulazio biltegiak etxeetako harguneekin eta hango kontrol eta neurketa aparatuekin lotzen dituztenak; saneamenduko toki-sareak, berriz, etxeko isurkinak beren harguneetatik araztegiaren aurreko hustubideraino eramaten dituzten hodiak, eta hiri lurzoruan eroritako euri urak bideratzen dituztenak, bai eta ukitutako instalazio eta zoladuren konponketa ere, deusetan ukatu gabe 11.3 artikuluan xedatutakoa.

4. Herrietako argietan sartzen dira herrigune finkatuaren barrenean dauden bide publikoak argitzeko instalazioak.

5. Zoladura emateko obretan sartzen da traza-dura berriko herri barruko bideak zolatzeari, oraingo bideetako zoladura hobetzea, euri urak biltzea, hala behar bada, eta kaltea jasan duten instalazioak lehengoratzeari, hori dena herriko lurzoru finkatuaren barrenean.

6. Udal eraikinen kontzeptuan sartzen dira oinplano berriko eraikinak altxatzeko nahiz lehendik

daudenak eraberritzeko obrak, eraikin horiek direnean udal eta kontzejuen administrazio egoitzak kokatzekoak, hala nola mankomunitateen nahiz administrazio zerbitzuetako elkarteen egoitzak, haien eskumenean barrenean plan zuzentzaileetako edo toki programazioko obrei lotutako zerbitzuak ematea baldin badago.

7. Hilerrietako obretan sartzen dira hala hilerri berriak egiteko obrak nola handitu edo berritzekoak, itxiturei, kanpo nahiz barneko urbanizazioari, azpiegiturei eta eraikin osagarriari eragiten dietenak. Ez da finantziatorik izanen nitxo, panteoi, mausoleo eta errauste nahiz erretze instalazioetako obretarako.

8. Herrietako bideetako obretan sartzen da bide berriak egitea edo lehendik daudenei zoladura ematea, egokitzea, hobetzea eta zabaltzea, irispidea izateko jendea bizi den lekuetara eta nahitaezkoak diren udal zerbitzuekin lotutako toki-ekipamenduetara.

9. Ondoko obrak salbuetsita geldituko dira: ukitutako jabeek edo toki entitateek, toki planeamenduen exekuzio sistemen edo hirigintza legeriaren aurreikuspenen esparruan, ordaindu beharreko urbanizazio gastuei lotuak.

4. artikulua. Zeharbideen urbanizazioa.

1. Toki entitateetako herriguneetako zeharbideen urbanizazio obrak Nafarroako Gobernuko Herri Lan Departamentuak zeharbideak zolatzeko duen programazioarekin koordinaturik egin beharko dira. Horretarako, entitate eskatzaileek, obren helburua zehazteaz gainera, agiri bat aurkeztu beharko dute frogatzeko departamentu horri eskatu diotela bere eskumeneko zeharbideko obrak egitea, horrela berrmatuko baita batetik, obren finantziazioa eta, bestetik, zeharbideko proiektuan jasotzen diren jarduketa guztiak modu koordinatuan eginen direla.

2. Aurreko atalean aurreikusitako zeharbideak urbanizatzeko obretarako 2009-2012 Toki Inbertsioen kargura egiten diren finantza ekarpenak eta eskaerak lehenesteko irizpideak foru lege honetan ezarritako araubidearen araberrakoak izanen dira.

3. Laguntza eskatuta ere, entitate eskatzaileak lehenengo atalean aipatutako eskaera egin izana ez frogatzeagatik ohiko planetik kanpo gelditzen diren zeharbideetako jarduketak, ohiz kanpoko planaren kargura finantzatzen ahalko dira, hartan ezartzen diren baldintzak eta eskakizunak betez gero.

5. artikulua. Libreki erabakitakoak.

1. Foru lege honen ondorioetarako, libreki erabakitako inbertsioak dira, udal eskumenak erabiliz, udalek eta kontzejuek bakar-bakarrik erabakitzen dituztenak.

Hori helburu, horrelako inbertsioak finantzatzeko funtsak erabiltzen ahalko dira, orobat, Inbertsio Planaren gainerako jarduketak osatzeko edo Toki Administrazio Departamentuak, beste departamenturen batek edo beste administrazio publiko batek diruz lagundutako beste jarduketa batzuk osatzeko.

2. Horrez gainera, Ohiko Planaren barrenean sartzan ahalko dira udal edo kontzeju batek baino gehiagok elkarrekin sustatzen dituzten libreki erabakitako inbertsioak.

3. Libreki erabakitako inbertsioetarako funtsetan udal edo kontzeju bakoitzak izanen duen partaidetza kalkulatzeko, horretarako eskuragarri dagoen diru zenbatekoari banaketa irizpide hauek aplikatuko zaizkio:

A) Udalerrri bakoitzaren partaidetza indizea aterako da hango biztanle kopuru ponderatuaren eta Nafarroako udalerrri guztietako biztanle kopuru ponderatuaren arteko zatiketa eginez. Biztanleria ponderatua ateratzeko eragiketa hau egingen da: 2007ko urtarrilaren 1eko datu ofizialen arabera herri bakoitzak duen biztanle kopurua bider hari dagokion biztanle-tartearen ponderazio koefizienteen interpolazioaren bidez lortzen den ponderazio koefizientea, taula honen arabera:

Biztanleen kopurua	Ponderazio koefizientea
50 arte	5,67777778
5-200	4,82777778
201-500	3,48888889
501-1000	2,69444444
1001-1500	2,15555556
1501-2000	1,81666667
2001-3000	1,4
3000tik gora	1

Tarte bakoitzaren ponderazio koefizientea ateratzeko, urriaren 29ko 12/2004 Foru Legearen 11. artikuluan tarte horretarako ezarritako gehieneko batez besteko kostuen eta biztanle tarte handieneko kostuaren arteko zatiketa egin da.

B) Kontzeju bakoitzaren partaidetza indizea aterako da aurreko irizpide bera kasuan kasuko kontzejuko biztanle kopuruari aplikatuz. Indize hori aplikatuko zaio erabilgarri dagoen diru-zenbateko osoari, kontzejuetako biztanleriak Nafarroa osoko

biztanleriaren aldean hartzen duen ehunekoarekin (%5,6708) biderkatuta.

C) Bere baitan kontzejuak dituzten udalerrri konposatuentzako behin betiko zuzkidura aterako da A) atalean ezarritakoaren arabera hasiera batean dagokien kopuruari B) atalaren arabera kontzejuetarako zuzkidura kenduz.

4. Libreki erabakitako inbertsioetarako, udal edo kontzeju bakoitzari esleitzen zaion zenbateko osoa entitate bakoitzak kontzeptu horretarako har dezakeen gehieneko kopuru erabilgarria izanen da.

5. Libreki erabakitako inbertsioetarako ekarpenekin finantzaturiko obrek planaren indarraldiko azken urtearen aurreko urtea bukatu baino lehen erabat exekutatuak egon beharko dute, salbu eta ekarpen horiek Inbertsio Planaren aurreikusitako gainerako jarduketak finantzatzeko baldin badira, kasu horretan exekuzio epea jarduketa horietarako ezarritako araubideak finkatuko baitu.

6. Libreki erabakitako inbertsioek artikulua honen lehenengo atalean ezartzen diren betebeharrak betetzen ez badituzte edo foru lege honen 13.C)1 artikuluan ezarritako prozedura arloko baldintzak betetzen ez badituzte, eta egindako obrarengatik dirua ordaintzea eskatzen bada, ukatuko dira, deusetan galarazi gabe entitate jasotzaileek baldintza horiek betetzen dituzten beste jarduketa batzuetarako bideratu ahal izatea esleitutako dirua.

7. Foru lege honen arabera libreki erabakitako inbertsioetarako ekarpen gisa kalifikaturiko diru-esleipenak entitate jasotzaileek erabiltzen ez badituzte, Ohiko Planaren hedadura handitzeko soberakinak edo hurrengo Inbertsio Planetara bideratuko dira.

6. artikulua. Ohiz kanpoko Plana.

Inbertsio Planaren indarraldiko 2. urteko lehenengo seihilekoa bukatu baino lehen, Nafarroako Gobernuak foru lege proiektu bat onetsiko du toki inbertsioen ohiz kanpoko plan bat arautzeko, dagokion zuzkidura eta guzti, Ohiko Planaren barreneko plan zuzentzaileetan eta toki programazioetan sartzeko eskatu arren onartu ez diren toki azpiegituretarako inbertsio beharrei erantzuteko, betiere haien helburua oinarritzko zerbitzuak ematea bada eta, hala badagokio, banakako defizitaren gehieneko kalifikazioa lortzea, eta exekutatu ezean helburu hori lortzea benetan zaila bada eta, horren ondorioz, lurraldeen arteko desorekak sor badaitezke, eta hori saihesteko, ukitutako biztanleriaren arabera eta toki entitatea kokatua dagoen

inguruaren ezaugarri sozio-ekonomikoen arabera, ohiz kanpoko tratamendua behar baldin badute.

Halaber, Ohiz kanpoko Planera bideratutako funtsekin "Zeharbideen urbanizazioa" sailean sartutako jarduketak finantza daitezke, baldin eta jarduketa horien exekuzioa Nafarroako Gobernuoko Herri Lan Departamentuarekin koordinaturik eginen dela bermatzen badu Gobernuak Ohiko Planaren indarra hartu ondoren.

Foru lege honetan Ohiz kanpoko Planetara bideratutako funtsak, planaren beraren ezaugarriak direla-eta hartan aplikatu ezin badira, Ohiko Planaren hedadura handitzeko soberakinetara bideratuko dira.

7. artikulua. Toki Inbertsioen Planari lotutako jarduketaren finantziarioa.

Toki Inbertsioen Planari lotutako jarduketak baliabide hauekin finantzatu dira:

a) Toki entitateen Nafarroako tributuetako partaidetza funtsa, Nafarroako aurrekontu orokorretan kapital transferentzien modura jaso dena.

b) Bestelako erakunde publiko nahiz pribatuen ekarpenak.

c) Toki entitateen baliabideak.

d) Kreditu eragiketak.

e) Nafarroako aurrekontu orokorretatik datozenak, "Fundación Itoiz-Canal de Navarra" izeneko fundazioaren bitartez bideratuak.

8. artikulua. Ekarpeneren bateragarritasuna.

1. Bestelako erakunde publiko nahiz pribatuek egindako ekarpenak bateragarriak izanen dira aurreko artikuluan aipatzen diren gainerako ekarpenekin.

2. Hala ere, aurreko artikuluko a), b) eta d) letretako ekarpenekin inbertsioaren kostuaren %100 gainditzen bada, %100 horretatik goitiko gaindikina kenduko da Toki entitateen Nafarroako tributuetako partaidetza funtsaren kargura oro har esleitzen diren ekarpenen kargura ematen den diru kopurutik.

Aurreko lerroaldean aurreikusitako ondorioetarako, libreki erabakitako inbertsioetarako ekarpenak gutxituko dira lehenbizi, horrelakorik badago, toki entitateak berriz esleitzeko modukoak direlako.

9. artikulua. Toki entitateen Nafarroako tributuetako partaidetza funtsaren kargurako ekarpenak.

1. Toki Inbertsioen Planerako ekarpenak, Nafarroako aurrekontu orokorretan kapital transferen-

tzia gisa egiten direnak, urte anitzekoak izanen dira, eta hasiera batean, foru lege honen III. eranskineko taulan zehazten direnak izanen dira.

Nolanahi ere, zuzkidura ekonomikoak planaren barreneko toki programazioko kontzeptuen artean berriz esleitu dira, izan ere, "epe laburrean beharrezkoak diren lan" (ADI=10) gisa sailkaturiko inbertsioak "epe ertainean beharrezkoak diren lan" (ADI=7) gisa sailkaturikoen aurretik jarri baitira.

Partaidetza Funtsaren ekarpenen behin betiko banaketa 2009-2012 eperako Toki Inbertsioen Plana onesteko Gobernuaren Erabakiaren argitalpenean agertzen dena izanen da.

2. Nafarroako Gobernuak planean zehaztutako ekarpen horietatik 100eko 10 bitarte erreserbatzen ahalko du plan zuzentzaile, toki programazio edo zeharbideen urbanizazioetako jarduketetarako, ezinbestean edo ustekabean gertatzen badira edo presa handikotzat jotzen badira, baita justifikatutako arrazoiak direla-eta ohiz kanpoko araubidearen finantziarioa behar duten jarduketetarako ere, betiere arrazoi horiek espedientean egiaztatutik.

3. Plana exekutatzen ari den bitartean, Toki Administrazioiko Departamentuak planaren esparrua zabalduko du, Toki Araubideko Foru Batzordearen txostenaren ondotik, hasieran sartu ez ziren baina 15.4 artikuluan aipatzen den argitalpenean erreserban agertzen diren inbertsioak bere baitan hartzeko, kontuan izanik hurrenkera finkatzeko erabiliko den hautatze eta leheneste koefizientea, honako kreditu hauen kargura:

a) Gertatzen diren soberakinak edo Toki entitateek parte hartzeko Funtsaren araudia aplikatzearen ondorioz sortzen diren soberakinak, kapital transferentzien bidezkoak.

b) Foru lege honetan aurreikusitako erreserben liberazioa.

c) Gerakinen kontuetako aurrezkiak, artikuluko honetako 7. idatz-zatian ezarritako moduan.

Plana zabaltzearen ondorioz, aurreko letretan adierazi diren kredituak berriz ere esleitu dira artikuluko honetako 1. puntuan aipatutako III. eranskineko A), B) eta C) idatz-zatietan zehazten diren kontzeptuen artean, erreserban utzitako inbertsio eskaerei erantzun ahal izateko.

Planaren zabalkundearen ondoriozko obrei Bigarren Xedapen Gehigarrian xedatutakoa aplikatuko zaie eta, betiere, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

4. Planaren ekarpenen banaketa ekitaldi bakoitzeko Nafarroako aurrekontu orokorretan agertuko da, behar den programan.

5. Nafarroako Gobernuak 100eko 10 bitarte handitu edo txikitzen ahalko ditu ekitaldi bakoitzeko ezartzen diren kopuruak, planean hautatu eta lehenesten diren obrak gauzatzeko toki entitateek ezartzen duten ordenaren arabera. Halakoetan, egokitu beharko ditu ekitaldi bakoitzeko aurrekontuetan esleitzen diren kopuruak, Nafarroako aurrekontu orokorretan Planerako bereizitako kopurua oso, guztira, alda ez dadin.

6. Funts horretako kontusailen artean, eta aurrekontuaren ekitaldiaren barrenean, zilegi izanen da aurrekontuetan behar diren egokitzapenak egitea programaren helburuak erdiesteko.

7. Erabilita izanda ere, aurrekontu ekitaldia ixten denean oraindik ere obligazioaren aitortpena egin gabe daukaten kopuruak kasuan, aitortutako obligaziotzat hartuko dira, ondorio guztietarako.

Gerakinen kontuetako aurrezkien bidez finantzatuko dira obretan izandako kostu igoerak. Dena dela, aurrezki horien kopuru osoa milioi bat eurotik goitikoa bada, ateratzen den gerakinarekin Ohiko Planaren inbertsio berriak finantzatzen ahalko dira, libreki erabakitakoak izan ezik, artikulua honek 3. puntuan adierazitakoaren arabera.

8. Ekitaldi ekonomiko batean erabiltzen ez diren Kapital transferentzien Funtseko baliabideak hari berari gehituko zaizkio hurrengo ekitaldian.

Baliabide horiek aurrekontuen erritmoaren arabera eta Planaren exekuzioaren arabera esleitu dira. Erritmo horren arabera, hurrengo ekitaldietara esleitu daitezke, baina diru zenbateko osoa aldatu gabe.

Planaren beharrei aurre egiteko, 3. idatz-zatian adierazi bezala, Aurrekontuei buruzko hurrengo foru legeetan haren erabilerari buruzko arauak sartzen ahalko dira.

9. 2009-2012 epeko ekitaldietako bakoitzean, Nafarroako Gobernuak geroko ekitaldien kargurako gastua baimentzen ahalko du, artikulua honetako 1. idatz-zatian ezarritakoaren ondorioz finkatutako urteko gehieneko diru-mugak eta 3. idatz-zatian aurreikusitako gehitzeetatik etortzen direnak gainditu gabe.

Nafarroako Gobernuak geroko ekitaldien karguko gastuak baimendu ondotik, Toki Administrazio-ko Departamentuak baimen horiei dagozkien gastu konpromisoak hartzen ahalko ditu.

10. artikulua. Inbertsioek bete beharrekoak.

Toki Inbertsioen Planean sartzen diren inbertsioek betebeharrak hauek izanen dituzte:

a) Exekutatu eta hasi gabeko inbertsioak izanen dira, salbu Toki Administrazio-ko Departamentuak hasteko espresuki baimendutakoak.

b) Obren kasuan, herriaren hirigintza planeamenduaren araberrakoak izanen dira.

c) Toki entitateen eskumenen eremuan sartzen diren inbertsioak izanen dira, edo entitate eskudunak egindako delegazioaren bidez haiek beren gain hartu dituztenak. Kontzejuen kasuan, gainera, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 39. artikulua 2. idatz-zatian xedatzen denaren ondorioz kontzejuek beren gain hartutako obrak sartzen ahalko dira.

11. artikulua. Obrak hautatu eta lehenesteko prozedura.

1. Toki entitateek programatu beharreko azpiegitura obrak, haiek eskatutakoak, Azpiegituren planean sartzeko, hautatze eta leheneste formula hau ezarriko da:

$$HLK = 0,75 ADI + 0,10 TPADO + 0,10 IE + 0,05 KTB$$

Azalpena:

HLK: hautatze eta leheneste koefizientea da.

ADI: Azpiegitura Defizit Indibidualaren adierazlea da, toki entitate interesdunak duena planean sartu beharreko obrari dagokionez, mota bereko azpiegiturekin alderatuta.

TPADO: Toki entitatearen toki programazioko azpiegitura defizit orokorraren adierazlea da, honakoei dagokiena: inbertsio planaren toki programazioko atalean aurreikusiren diren azpiegiturak, hornidura eta saneamenduko toki sareak, zoladura, kaleko argiak, udal eraikinak eta elektrifikazioa.

IE: toki entitate bakoitzarentzat Inbertsioaren Errentagarritasuna biztanle bakoitzeko adierazten duen koefizientea da, eta honela kalkulatu da:

Biztanle bakoitzeko inbertsio bategiaren kostu (Cm) hauek hartuko dira, azpiegitura motaren eta biztanleria tarteen arabera kalkulaturik, taula honetan datorren bezala:

POPULAZIO TARTEAK								
BIZTANLEAK	50 ARTE	50 eta 200 bitarte	200eta 500 bitarte	500 eta 1.000 bitarte	1.000 eta 1.500 bitarte	1.500 eta 2.000 bitarte	2.000 eta 3.000 bitarte	3.000 eta 300.000 bitarte
Hornidura eta saneamenduko sareak:	5.877	4.997	3.611	2.789	2.231	1.880	1.449	1.035
Kaleko argiak	2.202	1.875	1.432	1.047	840	707	546	391
Zolatzak	5.877	4.997	3.611	2.789	2.231	1.880	1.449	1.035
Udal eraikinak	1.731	1.466	1.121	822	656	552	426	305
Hilerriak	518	443	339	247	196	167	127	92
Herrietako bideak	1.731	1.466	1.121	822	656	552	426	305

Batez besteko kostu (Cm) hori kalkulatu da linealki txertatuz dagokion biztanleria-tartearen bi muturren artean.

IE zenbatekoa den zehazteko, kasuan kasuko toki entitateak azpiegitura berari buruz egiten dituen eskaera guztien aurrekontuen batuketa eginen da, eta kalkulatu da unitateko kostua bizilagun bakoitzeko, haietako bakoitzari dagokiona, ondoko formula honi jarraikiz:

$$U_k = E/BK$$

Ku: bizilagun bakoitzeko kostua da.

E: toki entitateak azpiegitura berari dagokionez eginiko eskaera guztien inbertsioen batura da.

B: toki entitateko biztanleen kopurua, biztanleriari buruz argitaratutako azkeneko datuen arabera.

Mankomunitateek aurkezturiko eskaeren koefizientea kalkulatzeko, haiek osatzen dituzten toki entitateetako biztanleen batura hartuko da kontuan.

Koefiziente hori bera kalkulatzeko udal konposatuek aurkezturiko eskaeretan, kasuan kasuko udalerriko biztanleria osoa hartuko da kontuan.

Azkenik, bizilagun bakoitzeko kostua, azpiegitura bakoitzean, bizilagun bakoitzeko inbertsioaren batez besteko kostuekin konparatuko da, ondoko taulari jarraikiz:

KUren BALIOA	IE:
$K_u \leq 0,2 B_k$	10
$0,2 B_k \text{ `` } K_u \leq 0,4 B_k$	8
$0,4 B_k \text{ `` } K_u \leq 0,8 B_k$	6
$0,8 B_k \text{ `` } K_u \leq 1,2 B_k$	5
$0,4 B_k \text{ `` } K_u \leq 2,0 B_k$	4
$2 B_k \text{ `` } K_u \leq 4,0 B_k$	2
$4 B_k \text{ `` } K_u$	1

KTB: adierazten du zenbatekoa den kapital transferentzien kopurua, Toki Administrazioari Departamentuak aitortu dituenena 1993tik 2008ra bitarte exekutaturiko Toki Azpiegituren Inbertsioko Planen kargura, oinarritzat hartuz behin betiko sarrera 2008ko abenduaren 1ean, edo, data horretan izan ez bada, behin-behinekoa, eurotan emana bizilagun bakoitzeko, eta biztanleriari buruz argitaratutako azkeneko datu ofizialen arabera.

2. Aurreko zenbakian definitutako koefiziente guztiek Otik 10era bitarteko balioak hartuko dituzte. ADI koefizientea aldagai diskretua da eta, defizitaren intentsitatearen arabera, izan ditzakeen balioak 1, 4, 7 eta 10 dira.

Edozein kasutan, sartzeko lehentasuna izanen dute toki programazioko edozein azpiegituretako "epe laburrean beharrezkoak diren lanak" (ADI=10) direnek, "epe ertainean beharrezkoak diren lanak" (ADI=7) kalifikazioa dutenen aurretik.

3. Zolatze lanak eta sareetakoak atxikitzeko araubide berariazkoa:

Inbertsio Plan honetan ADI=10 kalifikazioa duten "Sarerik gabeko zolatze lanak" hasiera batez sartzeko, nahitaezkoa izanen da hornidura eta saneamendurako azpiegiturek egoera onean egotea, beraz 13. artikuluan aipatzen den dokumentazioarekin batera sareen titularrak horien egoerari eta denborari buruz emandako agiria aurkeztu beharko da, bai eta eskatutako zolatze lanen sustatzailearen konpromisoa ere esku-hartzeak hodian izanen duen eragina bere kontura lehenertzeko.

"Hornidura eta saneamendu sareetako lanak" sartzeko berarekin ekarriko du zolatze lana egitea ere, hala eskatzen bada, betiere jardueraren xede diren kaleen batez besteko zabalera, fatxaden artekoa, erregelamenduz ezarritakoa edo txikiagoa bada.

Neurri hori gaindituz gero, sareen lanak sustatu dituen eta horien eskumena duen toki entitateak zangek ukitutako zorua lehengoratzeko aurreikusitako beharko du bere balorazioan, eta Planean "sarerik gabeko zolatze lanak" izeneko atalean sar dadila eskatu, bereziki aipatuz inguruabar hori eskaeran, 13 e) artikuluan eskatzen den dokumentazio aurkeztu beharrik ez izateko.

Toki entitate interesdunak zola eman beharreko bideei dagozkien sareak berritzatzeko obrak Inbertsio Planean sartzeko eskatu badu eta "Sareak" kapituluaren obren HLK koefizientea ez bada nahikoa hasiera batean Planean sartzeko, "Zolatzea" kapituluari dagozkion obrak bazterturik geldituko

dira, "Zolatzea" kapituluaren HLKk lortutako puntuazioa edozein izanik ere.

Sareak berritzeari dagozkion zoladura lanek, zoladuraren egoera "epe laburrean beharrezkoak diren obrak" izeneko sailean sarturik badago (ADI=10), lehentasuna izanen dute "Zolatzea" izeneko inbertsioetako gainerako eskarien aurretik, betiere "Sareak" egiteko lanengatik erdietsitako HLKak lan horiek Planean behin-behinekoz sartzeko bide ematen badu.

4. 1. Hiri barneko zeharbideen urbanizazio lanetan lehentasunak ezartzeko formula hau erabiliko da:

$$ZLK = 0,50 K + 0,30 ADIZ + 0,20 ADOZ$$

Irakurbidea:

ZLK zeharbideak lehenesteko koefizientea da.

K koefizientea baloratzeko kontuan hartzen da Herri Lan Departamentuarekin formalizatutako hitzarmena izatea, haren eskumeneko jarduketak bermatzeko, edo eskatutako zeharbidearen jarduketak esparruan sarturik dauden lanak betetzeko gastua onartua edo konprometitua izatea aurreko toki azpiegituren planen kargura.

ADIZ Azpiegituren Defizit Indibidualaren adierazlea da, toki entitate interesdunak duena planean sartu beharreko zeharbide zehatzari dagokionez, mota bereko azpiegiturekin alderatuta.

ADOZ toki entitateak zeharbideetan duen azpiegituren defizit orokorraren adierazlea da, hasiera batean urbanizazioan ukitzen diren azpiegiturei dagokiena; hau da, hornidura eta saneamenduko tokiko sareak, zoladura ematea eta kaleetako argiak.

4.2. Aurreko idatz-zatietan definitu diren koefizienteak, Otik 10era bitarteko balioak hartuko dituztenak, kalkulatzeko prozedura eta irizpideak erregelamendu bidez finkatuko da.

12. artikulua. Inbertsioen araubide ekonomiko finantzarioa.

1. Ohiko Planeko plan zuzentzaileetan, toki programazioan eta zeharbideen urbanizazioan egiten diren inbertsioak finantzatzeko ekarpenen araubide orokorra hauxe izanen da:

a) Plan zuzentzaileak.

Uraren goi-hornidura: 100eko 80.

Ibaian arazketa eta saneamendua: 100eko 80.

Hiri hondakinak:

Bilketa: 100eko 70.

Tratamendua: 100eko 80.

Hondakin berariazkoak:

Bilketa: 100eko 70.

Tratamendua: 100eko 80.

b) Toki entitateek programaturiko azpiegiturako obrak:

Uraren goi-hornidura plan zuzentzaileetan sartu gabea: 100eko 80.

Hornidurako tokiko sareak: 100eko 70.

Kaleetako argiak: 100eko 70.

Zolatzea: 100eko 70.

Udal eraikinak: 100eko 70.

Hilerrriak: 100eko 70.

Herrietako bideak: 100eko 70.

c) Zeharbideen urbanizazioa:

Zeharbideen urbanizazioa: 100eko 70.

2. Kasu bakoitzean behar duen portzentajea aplikatuko da inbertsio planean sartutako inbertsioen zenbateko lagungarrien gainean. Inbertsio mota bakoitzari dagozkion zenbateko lagungarriak zehazteko irizpideak erregelamendu bidez finkatuko dira.

3. Salbuespen gisa, ekarpenaren portzentajea handitzen ahalko da, plan zuzentzaileei, toki programazioari eta zeharbideen urbanizazioari dagozkien inbertsioen zenbateko lagungarriaren 100eko 100 iristeraino, baldin eta kasuko toki entitatearen ahalmen ekonomikoa aztertu ondotik, bideraezina izan bada eta entitate horrek salbuespenezko araubidean sartzeari eskatu badu.

Nafarroako Gobernuak erregelamendu bidez ezarriko du zein irizpidetan oinarrituko den salbuespenezko araubide hori eta bertan sartzen diren toki entitateen zerrenda jendaurrera aterako du.

4. Libreki erabakitako inbertsioetarako ekarpen araubidea egindako inbertsioaren 100eko 100erainokoa izanen da, entitate bakoitzerako ezarritako gehieneko erabilgarritasunaren mugarekin.

13. artikulua. Prozedura.

A) Plan zuzentzaileak.

1. Plan zuzentzaileetan sartutako obrak kasuko zerbitzua ematen den eremuko toki entitateek egin beharko dituzte, non eta elkarlanean edo subrogatuta egiten ez diren, deusetan ukatu gabe kasu horietan toki entitateei dagozkien finantziazioko betebeharrak.

2. Plan zuzentzaileetako ezarpenek inbertsioak egiteko edo zerbitzuak ustiatzeko betebeharrak sortzen badizkiete toki entitateei, entitate horiek Nafarroako Gobernuaren lankidetzara eskatzen ahalko dute obligazio horiei aurre egiteko.

3. Plan zuzentzaileetako ezarpenen ondorioz behartutako toki entitateek betebeharrak burutzeko gaitasun teknikorik aski ez badute, edo beren borondatez betetzen ez badituzte, Nafarroako Gobernuak berak egiten ahalko ditu subrogazio bidez. Subrogazioz esku hartzeko, aldeztu aurretik Toki Araubideko Foru Batzordearen txostena beharko da.

B) Toki programazioa eta zeharbideen urbanizazioa.

1. Toki Inbertsioen 2009-2012 Planean Toki programazioko edo zeharbideen urbanizazio obrak sartzeko toki entitateek egiten dituzten eskabideak hiru hilabeteko epean aurkeztu beharko dira, foru lege honek indar hartzen duenetik hasita, administrazio prozedura erkidea arautzen duen araudian ezartzen den eran.

2. Eskabide bat aurkeztuko da Toki programazioko edo zeharbideen urbanizazioko obra bakoitzarentzat, foru lege honetako 3. eta 4. artikuluetan zehaztutakoaren arabera, eta ez da eskabiderik aurkeztuko jarduketara bererako bi ataletan.

3. Eskabideekin batera honako hauek aurkeztu beharko dira:

a) Aurreikusitako inbertsioa baloratzeko erabilzen den oinarritzeko informazioa, gutxienez ere memoria tekniko baloratu bat izan beharko duena.

b) Egin gogo den jarduketaren memoria, gutxienez ere alderdi hauek hartuko dituena: aurreikusitako obraren azalpena; obraren justifikazioa; berritu gogo den azpiegitura noizkoa den; aurreikusitako obraren kokapen planoak; guztira aurreikusitako aurrekontua, BEZa eta lansariak barne; obraren exekuziorako epeko programazioa.

c) Zeharbideak urbanizatzeko lanetan, sartu ahal diren azpiegiturari buruzko arestiko dokumentazioaz gain (sareak, zoladura eta kaleetako argiak), jarduketara horien aurrekontu xehakaturak eta Herri Lan Departamentuko zehaztutako dira, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak maiztaren 20an emandako 2015/1999 Foru Aginduan ezarritakoari jarraikiz (1999ko 71. :bon.a, ekainaren 7koa), bai eta Nafarroako Gobernuko Herri Lan Departamentuan haren eskumeneko jarduketak finantziazioa edo hori lortu izanaren egiaztagiriak eskatzeko aurkeztutako eskaeraren kopia bat ere.

d) "Sarerik gabeko zolatze lanak" xedetzat dituzten eskaeren kasuan, toki entitateak, orain arte deskribatutakoaz gain, lege honen 11.3 artikuluan aipatzen den dokumentazioa ere aurkeztu beharko da, sareen titularrak horien egoeraz eta denboraz emandako ziurtagiria alegia, eta sustatzailearen konpromisoa gertatzen diren eraginak bere kontura berritu edo lehengoratzeko.

e) Era berean, eskaera erregelamenduz ezarritako batez besteko zabalera baino handiagoa duten kaleetan egin beharreko jarduketan inguruak bada, hala dela adierazi beharko da, 11.3 artikuluan ezarritakoarekin bat.

f) Delegazio bidez exekutatzen diren obren kasuan, hori hala dela egiaztatu beharko du entitate delegatzaileak edo delegazio hartzaileak, Partaide-tza Funtsak edo bestelako erakunde publiko nahiz pribatuaren ekarpenek estaltzen ez duten finantziarioan entitateetako bakoitzak bere gain zenbat hartu behar duen adierazita. Bakar-bakarrik kontzejuko bizilagunentzat interesa izanik, udalak egin edo ematen ez dituen obra edo zerbitzuak badira, Toki Administrazioiko Departamentuak udalari eskatuko dio espresuki azal dezala bere jarrera halako kasuan, eta ulertuko da udalerrriak ez duela obra egiten edo zerbitzua ematen, galdetzen zaionetik hasi eta 10 eguneko epean erantzuten ez badu.

C) Libreki erabaki beharrekoak

1. Libreki erabaki beharreko ekarpenen hartzaile diren toki entitateek txosten bat eskatuko diote Toki Administrazioiko Departamentuari, planaren indarraldiaren edozein unetan, egin gogo dituzten inbertsioak foru lege honen 5.1 artikuluko lehen lerroaldean jasotako irizpideekin bat datozen adieraz dezan.

Nolanahi ere, aurreko lerroaldean aipatzen den txostena eskatu gabe, ekarpenak ordaintzeko eskaera egin aurretik inbertsioak egin dituzten entitateek Toki Administrazioiko Departamentuari eskatu beharko diote berrets dezala inbertsioa bat datorrela 5.1 artikuluko lehen lerroaldean ageri diren irizpideekin.

Aipatutako 5.1 artikularen bigarren lerroaldean aurreikusitako kasuetan ez da beharrezkoa izan txosten hori eskatzea, ez eta norainokoaren berrespena ere.

2. Era berean, toki entitateek Toki Administrazioiko Departamentuari jakinarazi beharko diote beste finantza ekarpen batzuk dituztela, foru lege honen 8. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako.

3. Foru lege honen 5.2 artikuluan aurreikusitako kasuan, jarduketak batera sustatzen dituzten toki entitateek horren berri eman beharko diote

Toki Administrazioiko Departamentuari, entitate sustatzaileek Osoko Bilkuran hartutako erabakien frogagarria igorritz; agiri horretan adierazita egonen da hala dela eta, beraz, horretarako libreki erabakitakoen kargura erabiliko dituzten diru-atxikipenak metatuko direla.

14. artikulua. Larrialdiko prozedura.

Larrialditzat jotzen diren egoeretan, ustekabeak edo, aurreikusitak izanagatik, saihestezinak diren hondamendiak gertatzen direnean, foru lege honetan aipatzen diren toki azpiegiturak konpondu edo lehengoratzeko obrak finantzatzen ahalko dira Nafarroako tributuetan toki entitateek duten partaidetza funtsaren kargura. Obrak sartzeko prozeduran ez dira aplikatu beharko foru lege honetan ezartzen diren epeak, eta ez da beharrezkoa izan gainerako jarduketetarako nahitaezkoa den bideragarritasuna egiaztatzea, non ez den salbuzpeko araubidea eskatzen.

15. artikulua. 2009-2012 eperako Azpiegituren Planaren taxuketa.

1. 13. artikuluan ezarritako eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, eta Toki Inbertsioen 2009-2012 Ohiko Plana onetsi baino lehen, Toki Administrazioiko Departamentuak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko du, informazio gisa eragina izan dezan inbertsioak planean sartzeko eskatu duten toki entitate interesdunentzat. Informazioko eta alegazioak aurkezteko epea ez da hamabost egun baliodunetik beheitikoa ez hila-betetik goitikoa izan.

2. Horrela taxututako Inbertsioen ohiko Planean sartzeko ahalko dira 9.1. artikuluan aipatzen den III. Eranskineko A), B) eta C) lerroaldeetan aipatzen diren kontzeptuengatik egin gogo diren obrak, haietako bakoitzaren kostuaren ehuneko laurogeita hamar bitarteko finantziarioarekin, artikuluko haren 2. puntuan ezarritako erreserbak eta bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa egin ondok. Gelditzen den gainerako 100eko 10a erreserban utziko da, Plana onetsi arte, aurkezten diren alegazioak ebatzi eta gero.

3. Inbertsioak planean sartzeko, hautatze eta leheneste koefiziente handiena kontuan hartuko da, 11. artikuluan zehazten den moduan, bai eta kasuari dagokion finantziario araubidea, orokorra edo berezia, foru lege honen 1.4 artikuluan xedatutakoarekin bat. Ondorio horietarako, 11. artikuluko 2. idatz-zatian, bigarren lerroaldean ezarritako irizpidea ere aintzat hartuko da.

4. Toki Inbertsioen 2009-2012 Ohiko Plana, foru lege honen 1.3. artikuluan, a), b) eta c) letretan, ezartzen diren jarduketak hartzen dituen, Nafa-

rraoko Gobernuak onetsi beharko du eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Argitalpen horretan paratu beharko dira planean sartu ez diren inbertsioak eta lortu dituzten hautatze eta leheneste koefizienteak, koefizienterik handienetik txikienera ordenaturik, geroago sartzeko joateko foru lege honetan aurreikusten den bezala.

16. artikulua. Gastu konpromisoak.

1. Inbertsioen bat Ohiko Planean sartuta edukiz gero, toki entitateek haren exekuzio proiektua aurkeztu beharko dute, urte horretan toki entitate horretarako sartu diren inbertsioak finantzatzeko plan ekonomiko batekin batera, bai eta toki entitate eskatzaileak hartutako erabakia ere, bertan jasota finantziazioa foru lege honen 7. artikuluko b), c) d) eta e) letretan aurreikusitako baliabideetako bat erabiliz osatzeko konpromisoa, inbertsioa Nafarroako Tributuetako partaidetza funtsaren kargura edo beste erakunde publiko edo pribatuen ekarpen bidez osorik finantzatzerik ez badago, zati hori.

2009. urterako sartutako inbertsioei dagokien dokumentazioa hiru hilabeteko epean aurkeztu beharko da, Plana argitaratzen denetik hasita.

Baldin eta dokumentazioa 2010 eta 2011ko ekitaldietarako obrei buruzkoa bada, agiriak 2010eko apirilaren 1a eta irailaren 1a baino lehen aurkeztuko dira, hurrenez hurren, eta 2012ko obrak direnean, berriz, 2011ko maiatzaren 1a baino lehen.

2. Proiektuaren egokitasun teknikoa nahiz ekonomikoa eta bideragarritasun ekonomiko finantzarioa egiaztatu ondotik, Toki Administrazioiko Departamentuak zehaztuko da Inbertsioen Planaren karguko ekarpen ekonomikoaren gehienekoa, foru lege honen 12. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

3. Baldin eta toki entitateak bideraezinak direla kontsideratu bada sartutako inbertsioak finantzatzeko edo bideragarritasuna frogatu ahal izateko behar den dokumentazioa aurkeztu ez badute, 15 egun balioduneko epea izanen dute, gorabehera hori jakinarazten zaienetik, inbertsioa beren finantza ahalmenari egokitzeko, edo inbertsio horretarako bideragarritasun ekonomikoa emanen dien bestelako finantziazio-bideren bat aurkezteko, bai baliabide gehigarrietarako konpromisoa hartuz, bai salbuespenezko prozedura nahi dutela eskatuz.

4. Modu horretan ezartzen diren ekarpenak behin-behinekoak izanen dira, kasuan kasuko kontratua adjudikatzen den arte, orduan Toki Administrazioiko Departamentuak zehaztuko baitu ekarpena, adjudikazioan lortzen den beherapenaren arabera, halakorik gertatuz gero.

17. artikulua. Inbertsioen Planetik baztertzeak arrazoiak.

1. Toki Programazioko jarduketak inbertsioen planetik baztertzeak arrazoiak izanen dira honakoak:

a) Foru lege honetan ezarritako moduak eta epeak ez betetzea.

b) Ez finantziazio arruntean ezta salbuespenezkoan ere, bideragarritasun ekonomikoa eta finantzarioa ezarritako epeetan zehaztu ez izana.

c) Egin beharreko obrak urtebeteko epean ez hastea, Toki Administrazioiko Departamentuak 16. artikuluan aurreikusitako gastuaren konpromisoa finkatzen duen ebazpena ematen duenetik kontatzen hasita.

d) Obrak sartu ondoren gertatutakoengatik inbertsioak betetzerik ez izatea.

2. Plan zuzentzaileei eta zeharbideen urbanizazioari dagozkien jarduketetan, baztertzeak arrazoiak aurreko idatz-zatiko a), b) eta d) letretan aurreikusitakoak izanen dira, eta hasierako datak egokitu egingen dira, inbertsioa betetzearekin zerkusia duten erakunde publiko desberdinen eskuhartzean gertatzen diren inguruabarren arabera.

3. Jarduketak hein batean gelditu ahalko dira inbertsio planetatik, behin gutxienez %50 exekutaturik dagoela eta %50 horrek unitate bereizgarria eta funtzionalki bideragarria osatzen duela, sustatzaileari ezin egotz dakizkiokkeen arrazoiengatik amaitzea ezinezkoa denean.

4. Baztertzeak erabakia hartuko du ekarpen ekonomikoa finkatu zuen organo berak, dagokion espedientea tramitatu ondotik entzutea emanda toki entitate interesdunari.

5. Artikulu honetan aipatzen diren arrazoiengatik Planetik baztertutako gertatzen diren inbertsioak, foru lege honen 15.4 artikuluan aurreikusten diren erreserbako zerrendetan azkeneko lekuan daudenen atzean sartuko dira.

18. artikulua. Planaren kudeaketa.

1. Toki entitateei dagokie Inbertsio Planean aurreikusitako obrak kudeatu eta zerbitzuak ustiatzea, plana behar bezala aplikatzeko Nafarroako Gobernuak behar den jarraipena eta kontrola ukatu gabe.

2. Lankidetzan edo subrogazio kasuetan, Nafarroako Gobernuaren esku geldituko dira obrak kudeaketa eta zerbitzuen ustiapena.

19. artikulua. Toki entitateen partaidetza.

1. Nafarroako toki entitateek parte hartuko dute toki inbertsioen planaren kudeaketaren

jarraipenean, Toki Araubideko Foru Batzordearen bitartez.

2. Batzorde horri dagokio aurretiaz txostena egitea, nahitaezkoa, plan zuzentzaileei egiten zaizkien aldaketa eta eguneratzeen gainean, bai eta haien aplikazioari buruz organo eskudunek aurkezten dioten bestelako edozein gairi buruz ere.

20. artikulua. Urteko balantzea.

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentuari txostena igorri beharko dio, urtero, aurreko ekitaldian Toki Inbertsioen Planaren garapenari eta exekuzioaren egoerari buruz.

Xedapen gehigarriak

Lehena. Obrak zatika sartzea.

Toki Inbertsioen Planaren funts ekonomikoan banaketa hobetzeko, Nafarroako Gobernuak obrak zatika sartu ahal ditu Planean, betiere teknikoki egin badaitezke elkarren segidako fase desberdinetan.

Bigarrena. Obren aurrekontuak handitzea.

Ohiko Planean sartzan diren toki programazio-ko eta zeharbideen urbanizazio-ko obren zenbatekoa 100eko 10 bitarte handitu ahalko da, toki ogasunen funtsaren karguko konpromiso ekonomikoa finkatzen den unean; hori dela eta, III. eranskinean inbertsio horietarako ezartzen diren ekarpenen 100eko 5 erreserban uzten da.

Era berean, eta plan zuzentzaileetako lanak sartzan direnean, horietan, haien ezaugarriak direla eta, gerta daitezkeen aurrekontu desbideratzei aurre egiteko, aipatutako eranskinean finantziario-rako ezarritako ekarpenen 100eko 5eko erreserba eginen da.

Hirugarrena. BEZaren eragina.

1. Inbertsioen 2009-2012 Planaren karguko finantziarioa finkatzeko, foru lege honetan ezarritako ekarpen portzentajea inbertsioaren osotasunari aplikatuko zaio, BEZa barne, toki entitateak obren azken kontsumitzaile gisa jokatzan badu, alegia, BEZ jasana kengarria ez bada.

2. BEZari loturiko jardueri atxikitako inbertsio eta obretan, jasandako BEZa kengarri izateko eskubidea sortzen dutenetan, ekarpen portzentaje hori zerga oinarriaren gainean eginen da (BEZa kanpo).

Bigarren kasu horretan, konponbide partzialen ordainketan, obra burutuaren ziurtagiriei dagozkienetan, aurrerakin gisa sartzan ahalko da haietako bakoitzaren BEZa bider finkatu den ekarpen portzentajea.

Toki Administrazioiko Departamentuak kontuan hartu beharko ditu aipatu BEZaren aurrerakin horiek, konponbideei dagokienez guztirako ekarpena ordaintzen den kasuetan, ondoren erregularizatzeko.

Toki entitate batek, ekitaldiko BEZaren aitortpenengatik, ekitaldi horren bukaeran bere aldeko saldoa frogatzen badu, kopuru hori jasoko du Nafarroako Zerga Ogasunetik, zeinak behar den likidazioa eginen baitu hurrengo ekitaldiko lehen hiruhilekoari dagokion aitortpena aurkezteko epea amaitu baino lehen, nahiz eta ekitaldi horretako hiruhilean behingo aitortpenetakoren batean saldoa Nafarroako Zerga Ogasunaren aldekoa izan.

Laugarrena. Gehieneko ekarpen ekonomikoa mugatzea.

Planeko toki programazio-ko inbertsioei atxikitako baliabideak lurraldean hobeki banatzeko, azpiegitura mota bakoitzeko gehieneko ekarpen ekonomikoaren ondoko portzentaje mugak ezartzen zaizkie populazio tarte hauetan sartutako entitateei:

Populazio tarteak	Gehieneko %
– > 300.000 biz. % 25	
– 100.001etik 300.000 biztanlera bit.	% 18
– 50.001etik 100.000 biztanlera bit.	% 10
– 35.001etik 50.000 biztanlera bit.	% 8
– 25.001etik 35.000 biztanlera bit.	% 6
– 15.001etik 25.000 biztanlera bit.	% 5
– 10.001etik 15.000 biztanlera bit.	% 4

Bosgarrena. Inbertsio berrirako baldintzak eta ondorioak.

Ur hornidura, Plan Zuzentzaileetan ez daudenak	35.700	120.000	120.000	120.000	395.700
Hornidura eta saneamendurako tokiko sareak	1.560.000	6.300.000	6.250.000	6.700.000	20.810.000
Herrietako argiak	406.000	1.600.000	1.600.000	1.700.000	5.306.000
Zolatzeak sareekin	2.150.000	9.300.000	9.200.000	9.390.000	30.040.000
Zolatzeak sarerik gabe	833.000	3.300.000	3.150.000	3.290.000	10.573.000
Udal eraikinak	476.000	2.000.000	1.850.000	1.950.000	6.276.000
Herriko bideak	300.000	1.200.000	1.050.000	1.150.000	3.700.000
Hilerriak	250.000	1.065.374	989.436	1.030.099	3.334.909
<i>Araubide orokorra, guztira</i>	6.010.700	24.885.374	24.209.436	25.330.099	80.435.609

	2009. URTEA Euro	2010. URTEA Euro	2011. URTEA Euro	2012. URTEA Euro	GUZTIRA Euro
<i>B.2) Araubide berezia</i>					
Uraren goi-hornidura	42.000	128.000	125.000	130.000	425.000
Hornidura eta saneamendurako tokiko sareak	430.000	1.700.000	1.600.000	1.700.000	5.430.000
Herriko argiak	130.000	480.000	450.000	500.000	1.560.000
Zolatzak sareekin	570.000	2.200.000	2.100.000	2.200.000	7.070.000
Zolatzak sarerik gabe	230.000	890.000	850.000	900.000	2.870.000
Udal eraikinak	130.537	490.000	450.000	500.000	1.570.537
<i>Araubide berezia, guztira</i>	1.532.537	5.888.000	5.575.000	5.930.000	18.925.537
TOKI PROGRAMAZIOA, GUZTIRA	7.543.237	30.773.374	29.784.436	31.260.099	99.361.146
<i>C) Zeharbideak</i>					
Zeharbideen urbanizazioa	1.200.000	2.200.000	2.300.000	2.300.000	8.000.000
ZEHARBIDEAK, GUZTIRA	1.200.000	2.200.000	2.300.000	2.300.000	8.000.000
<i>D) Libreki erabakitakoak</i>					
Libreki erabakitakoak	40.000.000	0	0	0	40.000.000
LIBREKI ERABAKITAKOAK, GUZTIRA	40.000.000	0	0	0	40.000.000
OHIKO PLANA, GUZTIRA	56.197.537	57.602.474	54.542.536	56.018.599	224.361.146
2.- PLAN BEREZIA					
Plan Berezia	0	0	4.500.000	4.500.000	9.000.000
PLAN BEREZIA, GUZTIRA	0	0	4.500.000	4.500.000	9.000.000
GUZTIRA	56.197.537	57.602.474	59.042.536	60.518.599	233.361.146

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako kontratu publikoei buruzko 6/2006 Foru Legeko 51. artikulua aldatzekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko uztailaren 1ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak Nafarroako kontratu publikoei buruzko 6/2006 Foru Legeko 51. artikulua aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Nafarroako kontratu publikoei buruzko 6/2006 Foru Legeko 51. artikulua aldatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2008ko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Foru Lege proposamena, Nafarroako kontratu publikoei buruzko 6/2006 Foru Legeko 51. artikulua aldatzekoa

ZIOEN AZALPENA

Gizarteratze-tresna nagusietako bat bihurtu da enplegua. Soldatapeko jarduera ekonomikoa da gizarte bazterkeriaren aurkako borrokaren osagai eraginkorrenetako bat.

Gaur egun, ordea, langabezia-tasa txikia den arren, badira enplegarritasun txiki edo oso txiki eta batere enplegarritasunik ez duten pertsonak, badira beste batzuk enplegu-prekariatatean

daudenak, lan merkatuan etengabe sartu eta irte-ten, eta badira orobat, lana izanagatik, soldata oso txikiak jasotzen dituztenak, arauz kanpo edo ezkutu ekonomian lan egiten dutenak; horiek denak gizarte bazterkerian edo gizarte bazterkeria pairatzeko arriskuan daude.

Enplegu-tresnak, oro har, gaitasun gehien dituzten pertsoneri eta enplegua lortzeko aukera gehien dituztenei zuzentzen zaizkie, eta gizarte zerbitzuak, berriz, talderik ahulenez arduratzen dira. Baliabide gutxi dituzte lanean hasi ahal izateko, baina ekintza-multzo bat hedatzen dute horretarako: informazio eta orientazio zerbitzuak, laneo eta lan-aurreko prestakuntza, auto-enplegurako aholkularitza, gizarte-enplegu babestuko programak eta abar. Gizarteratzeko eta laneratzekeo prozesua osatzeko neurriak behar dituzte ekintza horiek.

Izan ere, ekintza horietako gehienek “abiapuntuan” esku hartuta lortzen dute enplegua, hau da, oztopoak kenduz, trebetasunak eta gaitasunak hobetuz eta abar. Hori dena garrantzitsua da, baina oinarritzko alderdi bat falta da oraindik ere: “helmuga” edo enplegu zehatz bat lortzea.

Honela definitzen dira “gizarte-klausulak”: kontratazio publikoko prozesuetan gizarte-politikaren elementuak txertatzea, eta zehazki enplegua sustatzea gizartean bazterturik edo baztertzeko arriskuan dauden pertsonentzat, pertsona horiei lan munduan sartzeko laguntzarren. Logikoa denez, klausula horiek ezin dira tresna isolatu bat izan, beste jarduketa batzuen osagarri izan behar baitute. Horien balioa datza, hain zuzen ere, laneratzekeo ibilbidea osatzeko izan ohi den zailtasuna enplegua lortzearen bidez gainditzeko beharrean. Halatan, “gizarte-klausulen” bitartez, lanpostu kopuru jakin bat erreserbatuko zaie gizartean bazterturik edo baztertzeko arriskuan dauden pertsoneri, lan munduan sartzeko eta enplegua lortzeko sinergiak baliatuta.

Ilido horretan, aintzat hartu behar da Kontratazio publikoari buruzko Europako Kontseiluaren eta

Parlamentuaren 2004/18/CE Zuzentaraua, ondo-koa ezartzen baitu: “Tratu-berdintasuna bermatze aldera, esleipen-irizpideek eskaintzak konparatzeko eta modu objektiboan ebaluatzeko aukera eman behar dute.” Baldintza horiek betetzen badira, esleipen-irizpide ekonomiko eta kualitatibo jakin batzuek, esaterako ingurumen-beharkizunak betetzeari buruzkoek, bide emanen dute adjudikatzaileak publiko ukituaren beharrianak ase ditzan, kontratuaren espezifikazioetan definitutakoari jarraikiz. Baldintza horietan, adjudikatzaileak ondoko gizarte-eskakizunak asetzerantz bideratutako irizpideak baliatu ahaliko ditu: kontratuaren xede diren obren, horniduren eta zerbitzuen onuradun edo erabiltzaileak zein populazio-maila bereziki kaltetutakoak diren, horrexen beharrian berekiei –kontratuaren espezifikazioetan definitutakoei– erantzuten dietenak.

Sektore publikoko kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legeko 134. artikulua ezartzen duenez, “proposamenak balioeste aldera eta eskaintzarik ekonomikoki onuragarriena ezartze aldera, kontratuaren xedeari zuzenean lotutako irizpideak baliatu beharko dira, hala nola ondokoak: kalitatea, prezioa, obra erabiltzeari edo zerbitzua emateari lotutako ordainsariak berrikusteko erabil daitekeen formula, prestazioa eman edo betetzeko epea, erabileraren kostua, ingurumen arloko ezaugarriak edo kontratatu beharreko prestazioen onuradun edo erabiltzaileak zein populazio-maila bereziki kaltetutakoak diren, horrexen beharrian berekiei –kontratuaren espezifikazioetan definitutakoei– erantzuten dieten gizarte-eskakizunak asetzeari lotutakoak, errentagarritasuna, balio tekniko, ezaugarri estetiko edo funtzionalak, ordezkoen kostua eta eskuragarritasuna, mantentzea, laguntza tekniko, salmenta ondoko zerbitzua edo antzeko beste batzuk.”

Artikulu bakarra.-

Aldatu da Nafarroako kontratu publikoei buruzko 6/2006 Foru Legeko 51. artikuluko 3. idatz-zatia, honela idatzirik geldituko baita:

51. artikulua. Kontratu esleitzeko irizpideak.

1. Kontratuak esleitzeko oinarritzko irizpideak honako hauek izanen dira:

a) eskaintako prezioa soilik.

b) gainerako kasuetan, eskaintza onuragarriena zein den zehazteko, kontratuaren xedeari lotutako irizpideak erabiliko dira, hala nola kalitatea edo kalitatearen kontrolerako mekanismoak, prezioa, eskaintzaren balio tekniko, ordezko produktuen eskuragarritasuna, ezaugarri estetiko eta funtzionalak, ingurumenari dagozkion ezaugarriak, funtzionamendu kostua, errentagarritasuna, salmenta ondoko zerbitzua eta laguntza tekniko, emate data eta ematearen edo exekuzioaren epea, eta antzeko beste batzuk.

2. Kontratu eragin duen interes publikoa zein den, kontratazio organoek hartarako irizpide egokiak erabiliko dituzte. Eskaintako prezioa elementu erabakigarri bakarra bada, hura soilik erabiliko da esleipenerako irizpide gisa. Betiere emakida kontratuak eskaintza onuragarriari esleituko zaizkio.

3. Administrazio klausula partikularren agiriek, oro har, aurkeztutako eskaintzaren gizarte-ezaugarriak jasoko dituzte esleipen-irizpideen artean. Gizarte-ezaugarri horiek kontratatu beharreko prestazioen erabiltzaile edo onuradun gisa azaltzen diren populazio-maila bereziki kaltetuen beharrianak ase beharko dituzte, halako moduz non ondokoak balioetsi eta puntuatuko baitira: kontratu beteko duten pertsonen zer ehunekok duen ezgaitasunen bat edo bazterturik dagoen, generoaren perspektiba, enpleguaren kalitatea, enplegu mugagabea, lan osasuna eta segurtasuna, bidezko merkataritzako produktuen erabilera, gizarteratze enprekin eta enplegu zentro bereziekin kontratatzea edo azpikontratatea, pertsona guztientzako diseinu unibertsaleko eta irisgarritasuneko irizpideak edo Lanaren Nazioarteko Erakundearen hitzarmenak betetzea. Gizarte-irizpideen zenbaketa eta ponderazioa ezin izanen da baremoaren ehuneko 20 baino handiagoa eta ehuneko 10 baino txikiagoa izan eskaintzak balioestean.

Xedapen gehigarria

Lege hau indarrean sartu eta sei hilabeteko epean garatuko da erregelamendu bidez, zeinak zehaztuko baitu lege honetan zerrendatzen diren gizarte-klausulak baloratzeko modurik objektiboena eta hoberena.

Foru Lege proposamena, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 5.b) artikulua aldatzekoa.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko uztailaren 1ean egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2008ko ekainaren 26an egindako Osoko Bilkuran, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 5.b) artikulua aldatzeko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du eta 2008ko maiatzaren 16ko 46. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147, 151. eta 152. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 5.b) artikulua aldatzeko

Foru Lege proposamena prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Foru Araubideko Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2008ko irailaren 22ko eguerdiko hamabietan bukatuko da**. Epe horretan, Erregelamenduko 127. eta 147. artikuluetan ezarritakoarekin bat, parlamente-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2008ko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Andelosko aztarnategi arkeologikoari buruzko plan zuzendari bat presta dezan.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko uztailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Andelosko aztarnategi arkeologikoari buruzko plan zuzendari bat presta dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Roberto Jiménez Alli, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldearen eledunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 195. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, honako mozioa aurkeztu du, Legebiltzarraren Osoko Bilkuran eztabaida eta onets dadin, Nafarroako Gobernuak premiatzeko Andelosko aztarnategi arkeologikoari buruzko plan zuzendari bat egin dezan.

Zioen azalpena

Iturri klasikoek aipatua (Pliniok eta Ptolomeok, besteak beste), Andelos da baskoien eremuan dagoen hiri erromatarrik garrantzitsuenetariko bat. Aita Moretek aurkitu zuen zientziarako, eta Nafarroako Foru Diputazioak aztertu zuen joan zen mendeko berrogeiko hamarkadan. Nafarroako Gobernuak indusketa sistematikoa egin du bertan, 1980. eta 2002. urteen bitartean, baliabide tekniko,

ekonomiko eta giza baliabide handiak erabiliz. Lan horien arduraduna Nafarroako Museoko zuzendari izandako María Ángeles Mezquíriz izan zen. Azterlan horien ondorioz, lurpetik atera dira hiri erromatarren egituraren zati bat eta hiria urez hornitzen zuen sistema hidraulikoa; sistema hidrauliko hori ondokoek osatzen dute: “Deabruaren zubia” izenaz ezaguna den presa batek –Iturrandozko sakanean–, ura erregulatzeko biltegiak eta ubideak. Halaber, Behe Erdi Arora arte iraun zuen Erdi Aroko herri baten etxe multzo bat aurkitu da.

2003ko udaberrian Andelosko Museo Arkeologikoa inauguratu zen. Oin berriko eraikin hori José Luis Franchezek diseinatu zuen. Aztarnategiaren sarrera da, eta zenbait gelatan dago banatua: harrera eta museoa, ikus-entzunezkoen gela, arkeologia gela, ikerketarako laborategia, biltegia eta abar. Museoaren erakusketak iraunkorrean beira-arasa bat dago, non indusketatik aurkitutako piezari esanguratsuenak dauden; halaber, multzo arkeologikoaren maketa bat ere dago, eta informazio panelak ere bai, ondokoei buruzkoak: mundu erromatarra, Andelosko hiria eta ur-hornidurarako zeukan sistema hidraulikoa. Museoa zabalik egon da orduz geroztik. 2005etik, enpresa pribatu bat arduratzen da aztarnategiaren mantentze-lanez eta museoaren arretaz.

Bestalde, Mendigorriko Udalak, iturri arkeologiko hori hiribilduaren eta bere inguruen garapen kultural eta turistikorako erabiltzeko gogotsu, Andelosko Jaialdi Erromatarra sustatu du. Aurten jaialdi horren VII. edizioa egingen da, eta jende ugari bilduko da.

Nafarroako Parlamentuko Kultura eta Turismo Batzordeak, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak eskatuta, aukera izan zuen instalazioa arreta handiz ikusteko, joan den ekainaren 13an bertara egindako laneko bisita batean. Hasitako ekimen garrantzitsuekin batera, Batzor-

deak aukera izan zuen ikusteko zein ziren aztarnategiaren gabeziak eta eskasiak.

Radako esperientziak, Arellanoko hiribildu erromatarrek eta Santa Crizko aztarnategiak, batetik; eta, azken bosturtekoetan arkeologiari eman zaion tratamenduak eta arlo horretan izandako aurrerapenek, nahiz Espainiako beste leku batzuetan izandako berrikuntza eta ekimenek, bestetik, adierazten digute aukera dagoela hasitako bidean aurrera egiteko, Espainiako Ondare Historikoari buruzko Legean eta Nafarroako Kultur Ondareari buruzko Legean ezarritakoari jarraikiz. Denboran zehar iraunen duen ekintza batek bakarrik (plan zuzendari batekin, zeinak jasoko duen zein diren alor ezberdinetan –arkeologia, historia, kultura, turismoa eta ingurumena– aurrera eraman beharreko ekintzak eta ekimenak) emanen du aukera Andelos garapen kultural eta turistikorako tresna bihurtzeko, eskualde horretan bertan nahiz Nafarroan orokorrean.

2007an izandako bisitari-kopuru txikia, instalazio-multzoa hobetzeko behar nabarmena, ibilbideirik eza eta bertan dagoena adierazten duen elementurik eza, klimaren ondorioz hondatutako hondakin baliotsuak, Museoaren instalazioen erabilera eskasa, dibulgaziozko bibliografiarik eza eta aztarnategiaren hedapen eskasa, besteak beste, behingoz benetako plan zuzendari bat egitea beharrezkoa dela agerian uzten duten arrazoiak dira, funtsezko tresna bat izan dezagun datozen hamarkadetan egin litezkeen jarduerak gidatze aldera.

Mozioaren testua

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiaz du:

1. Plan Zuzendari bat presta dezan Andelosko eremu arkeologikoari buruz, leku hori Parke Arkeologiko bihurtze aldera abian jarri beharreko jardueramultzoaren oinarritzko ildoak bilduko dituen, eremu hori bere eskualdearen garapen iraunkorrean eragina izanen duen ondare-baliabide bihurtzeko.

2. Plan Zuzendari horrek era integratuan jorratuko ditu Andelosko multzo arkeologikoa osatzen duten zati ezberdinak eta multzo horrek bere ingurunearekin duen lotura: hiri erromatarra, Iturrandozko presa, ur-biltegia, ubidearen hondakinak eta Erdi Aroko herrixka, bertan garai batean zegoen parroikia-hilerri zaharra barne, egun ermita dena.

3. Plan horrek gutxienez ere honako ekintzak jaso beharko ditu:

a.- Aldez aurreko azterlana eginen da ondokoek buruz: egindako lanak, sortutako dotazioak eta aztarnategian orain arte lortutako emaitzak, eta

aztarnategiaren gabeziak, hautemandako oinarritzko beharrak eta ahalmenak ere bai (zientifikoak, ondare eta hezkuntza alorrekoak, sozialak eta turistikoak).

b.- Planaren helburu orokorrak definitzea.

c.- Aztarnategiaren plangintza zientifikoa. Ikerketaren aurreikuspenak, epe ertainera.

d.- Andelosko eremu arkeologikoa osatzen duten egiturazko elementuak babesteko, kontserbatzeko, zaintzeko, egokitzeko eta mantentzeko programa.

e.- Interpretazio zentroaren proiektua eta lekua era ulergarrian egokitzea, errentagarritasun sozialerako giltzarri izan dadin, eta arreta berezia jarri ondoko elementu hauei:

– Dauden museo-instalazioak optimizatzea.

– Bisita didaktikoa egiteko ibilbideak sortzea, seinaleztatzea eta balizatzea.

– Informazio gune zehatzak eta atsedenlekuak ezartzea.

f.- Eremu arkeologikoan dauden espazioen paisajismo orokorrari buruzko proiektu bat egitea.

g.- Antolamendua, hirigintza arlokoa eta museoaren eremuan eta ermitan beharrezkoak diren azpiegitura orokor nagusia.

h.- Azterlan bat egitea, Andiñongo ermitaren aldameneko ermitau-etxea turistikoki birgaitzeko, bertan landa-ostatura, aterpetxea, jatetxea eta abar egite aldera.

i.- Aztarnategia Andelosko Jaialdi Erromatarrekin estu lotzea eta inplikatzeko. Jaialdi hori Mendigorriko Udalak eta Erdialdeko Turismo Partzuerkoak antolatzen dute.

j.- Multzo arkeologikoa eta horrek eskaintzen dituen zerbitzu kulturalen kudeaketa-eredu integrala proposatzea.

k.- Balorazio txostena, programatutako ekintzei buruzkoa.

l.- Egutegia, epeak, abian jartzea eta azken emaitzaren berri ematea.

4. Plan Zuzendari hori Nafarroako Parlamentuko Kultura eta Turismo Batzordean aurkeztuko da, 2008ko abenduaren 1a baino lehen, 2009ko aurrekontuetan sartze aldera plan horretan jasotako ekintzak aurrera eraman ahal izateko beharrezkoak diren kontusailak.

Iruñean, 2008ko ekainaren 23an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2009ko ekitaldiko aurrekontuen plangintzan goi karguen lansariak izotz ditzan.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko uztailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita 2009ko ekitaldiko aurrekontuen plangintzan goi karguen lansariak izotz ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 195., 196. eta 197. artikuluetan ezarritakoaren babesean, mozioa aurkeztu du, egoera ekonomikoari, egoera horrek Foru Komunitatean izanen dituen ondorioei eta heldu den urteko aurrekontu-plangintzari buruzkoa, Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena

Ekonomiaren egoera ikusita, botere publikoek neurriak hartu behar dituzte, egoera horrek herritarrengan, eta bereziki pertsona behartsuenengan, izan ditzakeen ondorioak ahal den neurrian leuntzeko eta gutxitzeko.

Gauza jakina da Nafarroako Gobernua irailean hasiko dela prestatzen eta taxutzen Nafarroako 2009rako aurrekontuen aurreproiektua.

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, aurreproiektu horren berri izateko izan beharreko elkarrizketei ekiterakoan, agerian utziko du, berriz ere, gure alderdiak gizarte-politiken sustapenarekiko eta garapenarekiko sentsibiltate berezia duela; izan ere, gizarte politikak dira, eta bereziki osasunaren, gizarte gaien, hezkuntzaren eta etxebizitzaren alorretakoak, gure erakundearen eta guk ordezkatzan ditugun herritarren kezka eta nortasun ezaugarriak.

Helburu horiek erdietsi eta,aldi berean, dirusarrera gutxi dituzten pertsona horiekin solidario izan nahi baldin badugu, neurriak hartu beharra dago, munta gutxikoak eta eragin ekonomiko txiki-koak izanagatik, zerbitzatzan dugun herritarrentzako adierazgarriak, eredugarriak eta solidarioak direnak hain zuzen ere.

Hori guztia dela-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du, Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, Nafarroako 2009ko aurrekontuen plangintzan izotz ditzan Nafarroako Gobernuaren nahiz izendapen libreko gainerako goi karguen soldatak eta gainerako ordainsariak –Nafarroako Gobernuaren nahiz haren menpeko enpresa publikoetakoak–.

Iruñean, 2008ko ekainaren 25ean

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gastu soziala ez dezan murriztu 2008ko aurrekontuak betetzean.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko uztailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita gastu soziala ez dezan murriztu 2008ko aurrekontuak betetzean.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 195., 196. eta 197. artikuluetan ezarritakoaren babesean, mozioa aurkeztu du, egoera ekonomikoari, egoera horrek Foru Komunitatean izanen dituen ondorioei eta aurtengo aurrekontu-betetzeari buruzkoa, Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena

Ekonomiaren egoera ikusita, botere publikoek neurriak hartu behar dituzte, egoera horrek herritarrengan, eta bereziki pertsona behartsuenengan, izan ditzakeen ondorioak ahal den neurrian leuntzeko eta gutxitzeko.

Hedabideen bidez jakin dugunez, Nafarroako Gobernuak zenbait neurri hartu ditu egin duen azken bilkuran, Nafarroako 2008ko aurrekontueta-ko zenbait kontusail izozteko, guztira 150 milioi euro egiten dutenak.

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, aurrekontu horiei emandako babesa hitzartzean, agerian utzi zuen gure alderdiak gizarte-politiken sustapenarekiko eta garapenarekiko sentsibilitate berezia duela; izan ere, gizarte politikak dira, eta bereziki osasunaren, gizarte gaien, hezkuntzaren eta etxebizitzaren alorretakoak, gure erakundearen eta guk ordezkatzun ditugun herritarren kezka eta nortasun ezaugarriak.

Hori guztia dela-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du, Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ez dezan murriztu gizarte-gastua Nafarroako 2008ko aurrekontuak betetzean, gizarte-gastua baita herritarren arteko berdintasunaren bermatzailea.

Iruñean, 2008ko ekainaren 25ean

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

F saila:
GALDERAK

Galdera, Gizarte Zerbitzuei buruzko Foru Legearen 62.2. artikuluan ezarritako erregelamenduari buruzkoa.*IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko uztailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, Gizarte Zerbitzuei buruzko Foru Legearen 62.2. artikuluan ezarritako erregelamenduari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko

Erregelamenduan ezarritakoarekin bat, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Galdera, Gizarte zerbitzuei buruzko Foru Legearen 62.2. artikuluan ezarritako erregelamenduari buruzkoa.

- Garatu al da profesional anitzeko lan-taldeen titulazioei eta ratioei buruzko erregelamendua dela-eta Gizarte zerbitzuei buruzko Foru Legearen 62. artikuluan xedatutakoa?

- Garatu ez baldin bada, zergatik ez da garatu?

- Departamentu horrek noiz onetsiko du 62.2 artikuluan ezartzen den erregelamendua?

Iruñean, 2008ko ekainaren 23an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, prestatu diren, prestatzen ari diren eta etorkizunean eginen diren plan zuzendariei eta horiek erasanen dituzten eraikin edo tokiei buruzkoa.

ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko uztailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, prestatu diren, prestatzen ari diren eta etorkizunean eginen diren plan zuzendariei eta horiek erasanen dituzten eraikin edo tokiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Román Felones Morrás-ek, Legebiltzarreko Erregelamenduko 186. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zioen azalpena

Ondareari buruzko Espainiako legediak jasotzen dituen plan zuzendariak eragin handia izan dute ondarearen kontserbazioaren alorrean gure herrian gertatu diren aldaketa kualitatiboak dagokienez.

Argi-ilunekin bada ere, adituak bat datoz: plan zuzendariak funtsezko tresnak dira kultur ondarearen alorreko jarduketaren plangintza egiteko.

Horien gaurkotetasunaren froga da Madrileko unibertsitate politeknikoak udako ikastaro bat antolatu izana uztailaren 21etik 24ra bitarte; ikastaroan, gai horretako aditu ospetsuek "plan zuzendariak ondarearen kontserbazioan" izanen dituzte hizpide, eta jarraian adierazten diren gaiak, erakargarriak inondik ere, jorratuko dituzte: "kontserbazioa, zaharberritze etengabea", "plan zuzendaria, kontserbazioaren oinarritzko osagaia", "plan zuzendaria ondareari buruzko Espainiako legedian" eta "plan zuzendariak, argi-ilunak". Horiekin batera adibide zehatzak aztertuko dituzte.

Bestalde, Nafarroako Gobernuak eta PSN-PSOEek 2008ko aurrekontuei buruz itxitako akordioan jasotzen da, Kultura eta Turismoaren arloan, lehen plan zuzendaria prestatuko dela, Nafarroako ondare historikoa eta artistikoa leheneratu eta babesteko.

Plan horri ahalik eta ondoen ekin ahal izate aldera, ondokoa jakin nahi dut:

Galderaren testua

1. Iragan hurbilenean prestatutako plan zuzendariak, eta horien eraginpeko eraikinak eta enklabeak.

2. Une honetan abian diren plan zuzendariak eta horien eraginpeko eraikinak edo enklabeak.

3. Etorkizun hurbilenerako asmoak.

Iruñean, 2008ko ekainaren 24an

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak asmorik duen kapital pribatuko zahar-etxeren batekin hitzartzeko zainketa aringarrien tratamendua edo, aitzitik, Tuterako Reina Sofía Ospitaleko eremuren bat horretarako gaitzeko asmorik duen.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko uztailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak asmorik duen kapital pribatuko zahar-etxeren batekin hitzartzeko zainketa aringarrien tratamendua edo, aitzitik, Tuterako Reina Sofía Ospitaleko eremuren bat horretarako gaitzeko asmorik duen.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ana Figueras Castellano, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galderak aurkeztu ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzuteko:

Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik kapital pribatuko zahar-etxeren batekin hitzartzeko zainketa aringarrien tratamendua edo, aitzitik, Tuterako Reina Sofía Ospitaleko eremuren bat gaituko du zainketa aringarrietarako?

Iruñean, 2008ko ekainaren 26an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, jakiteko noren ardura den Queiles ibaiaren Tuterako tartea zaintzea.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko uztailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko noren ardura den Queiles ibaiaren Tuterako tartea zaintzea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Parlamentari honek ondokoa jakin nahi du, Queiles ibaiaren Tuterako tarteko landaredia garbitzeari buruz:

– Noren ardura da Queiles ibaiaren Tuterako tartea zaintzea?

– Ibaia garbitzeko baimenen kopia.

– Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentuak hartuko dituen neurriak, ugaltze sasoiaren txorien habiak –urretxindorrenak, txinboenak edo lezkarienak– leheneratzeko.

Iruñean, 2008ko ekainaren 26an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, El Bocalen iragan ekainaren 24an izandako suteari buruzkoa.*AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko uztailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, El Bocalen iragan ekainaren 24an izandako suteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Aurtengo ekainaren 24an sutea izan zen El Bocalen, eta bi hektarea pinu eta sastra erraustu ziren. Horri buruz, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

– Zerk eragin zuen sutea?

– Zer kalte material eragin zuen suteak?

– Zein da galera ekonomikoen balorazioa?

Iruñean, 2008ko ekainaren 26an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, jakiteko zergatik utzi duen kargua bere borondatez María Luisa López Ballanok, Nafarroa Zaragozako Expo 2008n egotearen arduradunak.*PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko uztailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko zergatik utzi duen kargua bere borondatez María Luisa López Ballanok, Nafarroa Zaragozako EXPO 2008n egotearen arduradunak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaion:

Zergatik aurkeztu zuen borondatezko kargu-uztea María Luisa López Ballano andrea, alegia, Nafarroa Zaragozako EXPO 2008n egotearen arduradunak?

Iruñean, 2008ko ekainaren 26an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, Nafarroako Gobernuak NA-150 errepidea, Aos eta Murelu-Longida artean, hobetzeko duen asmoari buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko uztailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak NA-150 errepidea, Aos eta Murelu-Longida artean, hobetzeko duen asmoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuari, idatziz erantzun diezaion:

Nafarroako errepideei buruzko II. plan zuzendarian agertzen da Aos eta Murelu-Longida artean NA-150 errepidea hobetzea, "Galtzadak bikoiztea eta autobiak" izeneko jarduketan artean. Horri buruz, parlamentari honek hau jakin nahi du:

– Zer asmo du Nafarroako Gobernuko departamentuak errepide horretarako zabaltze eta hobetze jarduketei dagokienez?

– Zehaztu, kasua bada, errepide hori hobetzeko jarduketa-faseak, epeak eta aurrekontuak.

Iruñean, 2008ko ekainaren 26an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»
Urtebete 47,00 euro	Navas de Tolosa, 1
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,25 »	31002 IRUÑA
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,40 »	